



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

Zorionak eta
Urte Berri on!

Hurrengo aldizkaria
2016ko urtarilaren
14an etxeetan

2015eko abenduaren 10a | XXXV. urtea | 652. zenbakia

Gehigarri berezia

Eguberriak → 27-38

BAZTAN → 46

Abenduko Kultur Agenda
oparoa prest

BORTZIRIAK → 17

Bertso Eskolaren taldekako
txapelketa 11 eta 12an

URDAZUBI → 51

Dantzarineko ezbeharraren
harira polemika sortu da

SARA → 54

Urre miaketa proiektuak
kezka eragin du

Abenduaren 20an Tolosako Zezen plazan



IRUDIA: XABIER TREJO ETA KONTRALUZ ESTUDIOA

Azken erronka izan litekeena

Donato Larretxea eta Arria V.ak abenduaren 20an neurtuko dituzte indarrak. Tolosako Zezen Plazan egin dute hitzordua, eguerdiko 12etan. Hogei kanaerdiko ebaki beharko dituzte eta jokoan

24.000 euro daude. Nafarra eta gipuzkoarra aurrez aurre, handia da sortu den ikusmina, are gehiago arantzarrak «azken apustua izan liketeela» adierazi duenean.

KIROLIZKETA → 56

Eguberriak ate joka...

Gutti gelditzen da Eguberrietarako, eta beraz, Olentzero eta Mari Domingi laister helduko dira bisitan. Herri gehienetan abenduaren 24an ibiliko dira kalejiran eta kantuan, haur eta gazteek Olentzero bizkar gainean dutela. **Saran**, ordea, bi protagonistak lehenagotik egingen dute bisita, abenduaren 21ean. Gainerakoan, **Lesakan**, urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Olentzero eta Jaiotza lehiaketak egingen dituzte eta **Leitzan** balkoi, ganbera eta etxe atariak gisa guztietako Orantzaroekin apainduak ikusiko ditugu.



Baztan-Bidaso aldeko Lanbide Heziketa hizpide

Bera, Elizondo eta Le-karozko Lanbide Heziketa ikastetxeetako ordezkariak eskualdeko udalekin bildu dira egungo eskaintza eta pre-miak aztertzeko. → 39

Beatriz^o

ongizate zentrua
centro de bienestar

25 urte baino gehiagoko esperientziarekin

NAHI EZ DEN ILEA KENTZEKO LASER-DEPILAZIOAN TEKNOLOGIARIK AURRERATUENA

**Ba al zenekien
ilea eta azalaren araberako
laser depilazio klase desberdinak badaudela?**

- Ilea eta azalaren **fototipoa** dohainik **aztertzen dugu**
- Gure zentroan **lau depilazio sistemak** baditugu eta orain azken belaunaldiko **sistema aurreratuena** ekarri dugu, FDO eta Europak patentatua eta **klinikoki frogatua**

**GORPUTZEKO EDOZEIN ZONALDETAN ETA
URTEKO EDOZEIN SASOITAN APLIKATU
DAITEKE, BAITA UDAN ERE**


GIZON-EMAKUMEEN AZAL MOTA GUZTIETARAKO ERAGINKORRA

Depilazio sistema honen **abantailak**:

- Azkarra
- Eraginkorra 1.go saiotik
- %100 segurua eta gomendatua
- Minik gabe, azken belaunaldiko sistema berriari esker
- Ekonomikoa, %70a arte merkeagoa



LEHEN



ORAIN



LEHEN




ORAIN




LEHEN



ORAIN



LEHEN



ORAIN



LEHEN



ORAIN



LEHEN



ORAIN

Informazio gehiago:

T. 948 580 283 | Santiago 53 - 31700 Elizondo | info@beatrizbienestar.com | www.beatrizbienestar.com

GIZARTEA → ERRETIROA

Etapan baten bukaera, bertzearen hasiera

Urtea lanean hasi eta erretiroa hartuta bukatuko dute

Bat-bateko aldaketa dakar erretiroa hartzeak. Irtzargailuaren menpeko izateari utzi, afizio zahar eta berriei tokia egin... errutinak moldatzen

joatea. Erretiroa berriki hartu duten eskualdeko sei pertsonekin elkartu da TTIPI-TTAPA eta euren bizipenak kontatzeko eskatu die.

bigarrena Leitzako paper-fabrikako langilea; erraz eta gustura moldatu dira egoera berrira.

Jendaurreko lanera ohituak zeuden Martin Goikoetxea (Bera) argazkilaria, Jose Ignacio Arzallus eta Melchi Gil (Leitza) harakinak eta Maria Jesus Telletxea (Igantziz) sukaldaria. Argazki-denda itxi du lehenak eta aurreko mantala zintzilikatu dute besteek. Orain, hainbeste urtean lotura izan dutenetik aske bizitzen ikasten ari dira.

Pozik daude denak, argi dute, lan-bizimodua bukatzeak ehunka aukera berri irekitzen diela atea.

Eneritz IRAOLA

Egutegian seinalatua zuten eguna iritsi zen; azken laneguna. Eta gero zer? Horixe izan ohi da ohiko galdera: erretiroa hartu dutenek euren buruari egin eta ingurukoek ere errepikatu ohi dutena.

Lasaitasun osoz eman dute pausoa batzuk; urduritasun eta nostalgia punttu batekin besteek. Adituen arabera, lau hi-

labete inguru behar izaten dira egoera berrira egokitzeko. Ez dago formula bakarra ordea, aldaketa guztien aurrean bezalaxe, bakoitzak bere erritmo eta modura emanen baitu pausoa.

Gaztetan ikasitako lanbidea, erretiroa hartu dutenera arte izan dute ogibide Jesus Arburua (Zugarramurdi) eta Juanito Estangak (Saldias). Lehenbizikoa okina,

Jose Ignacio ARZALLUS eta Melchi GIL | LEITZA

«Garaia heldu dela ikusten duzu, osasunez ongi gaude eta orain egin beharra dago»

Hamabi urte zituenean herriko harakinari enkarguak egiten zizkion mutikoa zen Jose Ignacio «bizikleta hartuta etxetik ibiltzen nintzen banaketa egiten». Hamabi urte beranduago ireki zuen bere harategia «hutsetik hasi nintzen, bizpahiru urtez harategi batean lanean aritu eta Donostian Bretxako merkaturaren aurretik nintzen ikasten». Hasierako harategia «Mendizabal taberna zenaren ondoan ireki nuen eta 1983ko abenduan erosi genuen oraingo lokala». Melchi, ezkondu ondoren hasi zen harategian lanean «27 urterekin» eta negozioa ongi zihoala ikusita, Berastegin ere ireki zuten harategia «Jose Ignacio han aritzen zen lanean eta ni Jose Mari anaiarekin, Leitzako harategiaren kargu geratu nintzen». Urte guzti hauetan, harakinen lana asko aldatu dela diote «garai batean dena kiloka saltzen zen. Oilaskoa ere osorik eramaten zuten etxera. Orain berriz, oilasko bat eskatzen dizute, garbitu, petxugak kendu eta xerratu egin behar da. Eskulan gehiago egiten dugu. Lehen petxuga bat ez zuen inork eskatzen, orain berriz, xerra kilo bat norbaitek eskatzea arraroa da». Materiala landu eta «prestatutako jakiak askoz gehiago saltzen dira» eta aldaketa horren atzean «bizimodu aldaketa dago, jendeak beste modu batera jaten du eta baita erosi ere». Bezeroen beharretara egokitzeko «gauza asko ikasi ditugu eta ikasi beharra dago, zerbitzu bereziak eman, produktu aukera zabalagoa eskaini behar duzu eta dena prest eman behar diezu etxera joan eta denborarik gal ez dezaten». Horrek lanordua gehiago sartzea eskatzen du «ordutegirik gabe



aritzen ginen lanean, denda irekita zegoen garaian jendaurrean eta gero obradorean». Jendaurreko lana izan da euren eta Melchik euskaraz ez jakin arren inoiz ez duela arazorik izan azpimarratu nahi izan du «herritarrei eskerrak eman behar dizkiet, ez baitut inoiz arazorik izan. Beti harreman oso ona izan dugu jendearekin». Jose Ignacio 44 urte eman ditu harakin lanetan, Melchik 39 eta erretiroa hartzeko garaia argi ikusi zuten «urteak betetzen ari zara, eta garaia heldu dela ikusten duzu. Osasunez ongi gaude eta orain egin beharra dago. Berastegiko denda saldu genuen eta Leitzakoa ez dugu itxi Jose Mari anaiak, segiko baitu lanean». Erreleborik ez balute, erabakia hartzea gehiago kostako

ERRELEBOA

«Gogorra behar du norbere negozioko pertsona jekitsita ikustea. Guk zorionez, harategia esku onetan utzi dugula badakigu».

litzaiakela diote «denda paretetik pasa eta itxita ikusteak pena handia emanen liguke, gure bizitzako proiektu garrantzitsua delako». Abuztuaren 30ean egin zuten azken lan eguna eta geroztik «ez du inporta astelehena, asteazkena edo ostirala den. Haragia gogorra aterako ote zaizun, gizen gehiegirik... kezka horiek bukatu dira». Orain «egunean eguneko egin, bilobarekin gozatu, herrian ibili... detaile txikiekin disfrutatzen ari gara».

Martin GOIKOETXEA | BERA

«Erretiroa noiz hartuko nuen galdetu didan bakoitzari euroa kobratu izan banio... a zer pila!»



41 urtez argazkilari lanetan aritu ondotik, azaro hondarrean hartu zuen erretiroa Martin Goikoetxeak. 1974ko maiatzaren 2an hasi zen argazkilari lanetan eta ordutik argazki-makina lepoan izan du beti. Hala, argazkigintzan egon den eboluzioa gertutik bizi izan du; zuri-beltzeko negatiboarekin lanean hasi eta aro digitalean sartuta hartu baitu erretiroa. «Zuri-beltzeko negatiboarekin lanean aritzen nintzenean, argazkiak egunez aterata eta negatiboak gau horretan bertan errebelatu behar zen, afaldu bitartean uzten nuen lehortzen. Tenperaturarekin ere nahikoa lan izaten nuen, neguan tenperatura gehiegi jaisten zela. Milaka trikimailu beharrezkoak izaten ziren tenperatura 18-21 gradu artean mantentzeko: Iparraldetik ezkutu-an berogailuren bat ekarri, bandajen azpian berotutako adreiluak jarri...». Plastikozko Nerasport argazki-kamera izan zuen hasiera horretan bidelagun «gero argazki-kamera konpaktu bat erosi nuen eta beranduago reflex bat. Garai haietan reflex bat edukitzea Mercedes bat edukitzearen parekoa zen». Koloretan egin zituen lehenbiziko argazkiak ere nekez ahaztuko di-

tu «hasieran argazkia kolore batekoa ikusten zenuen, eta kopia bat eskatzen zenuenean bertze kolore batean etortzen zen. Andregai ilehoriak beltzarran bihurtzeraino» dio irriz. Koloreari neurria hartu zionean, berriro ere aldaketa etorri zen «sorginkeria kontuairuditu zitzaigun argazkia atera eta momentuan ikusteko aukera» aitortu digu. Edonon argazki kamerak dauden garaian, argazkilari profesionalek egiteko azpimarratzen du berak, «argazkia pentsatu, itxaron, arazoitu eta argazkia hau da» erran ondotik klik egiten segi duela dio.

LANAK EMANDAKOA
«Kameraren gibelean, baina jendearekin hartu-eman zuzenean, ezkutatu gabe aritzea izan da ofizio honek eman didan onena».

Erretiroa hartzea kostatu ote zaion galdetuta «bai eta ez» aitortu du «iazko maiatzean bete nituen 65 urte eta lanean segin nuen, bertzerik planteatu gabe. Aurten erabaki dut eguberrietarako erretiroa hartuko nuela».

San Martin egunez eman zuen berria eta dendako pertsiana azkenekoz itxi ondotik, «Ultzaman bizi diren bilobekin denbora gehiago pasa eta argazki-makinarekin harat eta honat ibiltzen segitzeko asmoa» du. Eskualdean besta edo ekitaldiaren bat bada, Goikoren argazki-kamera ez da urruti ibiliko, ofizioa berriro afizio bihurtuta.

Jesus ARBURUA | ZUGARRAMURDI

«Hiru-lau hilabete behar izan ditut usaia hartzeko; orain trankil trankil egiten dut lo»



Hamalau urterekin eskola bukatu eta lan bila Iparraldera joan zen Jesus Arburua «Arbonarat gan nintzen eta han hasi nintzen okin lanetan». Bertan ikasi zituen okin lanbidearen sekretuak. Arbonatik Zugarramurdira itzuli zen eta bentetan lanean eta Ameriketara lau urtez artzain ere ibili izan da. Urte batzuen burura ordea, berriro hasierako lanbidera itzuli eta okin lanetan eman ditu azken 24 urteak

«Burlatako okin-degi batean 10 urtez aritu nintzen lanean eta Uhartan, erretiroa hartu dudana okindegian, 14 urte egin ditut».

Okinaren lanbidea urteen poderioz aldatzen joan dela ikusi du eta bere ustez «orain errazagoa da». Adibidea ere aipatu du «Burlatan egurrezko labea genuen eta bertan ogia erretzen aritzen nintzen. Ogiaren forma eta pisuaren arabera denbora gehiago edo guttiago behar izaten zuen ogiak eta hori kontrolatu egin behar zen. Orain labe klase hori ez da gehiago ikusten. Labe modernoagoak erabiltzen dira, gasarekin berotzen direnak». Masa egiteko orduan ere izan da aldaketa «Arbonan hasi nintzenean, dela 40 urte, modu tradizionale-

an egiten genuen masa. Gaur egun ordea, badira kamarak eta ogiaren masa egin eta kontserba liteke. Horrek aunitz aldatu du lan egiteko modua». Lanbide lotua da okinarena «gogorra da, astean egun batez besta izaten genuen, aste tartez eta gero hamabortzetik behin igande bat libre izaten genuen. Bertzelako bakantza egunik ez genuen izaten». Gainera ordutegia bera ere ez zen

ETORKIZUNAZ
«Bidaiaitzea, irakurtzea eta nahi dudanerako nahi adina denbora hartzea da nire asmoa. Laburbilduz, bizitzaz disfrutatzea».

batere xamurra «goizaldeko hiru-eta lau orduetan hasi eta hamarrek aldera arte aritzen nintzen. Ordu pila ziren, lanera tenorez iristeko egunero bi orenetarako jaiki behar bait nuen». Erretiroa hartutakoan, «errutinen aldaketa» nabarmentzen du «lehenbiziko egunetan altxatzen nintzen goizeko bi eta erdiak aldera. Kostatzen zitzaidan lo hartzea... hiru-lau hilabete behar izan ditut usaia hartzeko. Orain trankil trankil egiten dut lo, kezkarik gabe». Aspertzeko tarterik ez du «ikastaroak, irakurri... ez dut denbora alferrik galtzen. Egunero oren bat eta erdi, bi orenez ibiltzera gaten naiz edo mendirat buelta bat ematera. Nahi dudanerako nahi adina denbora hartu eta bizitza disfrutatu nahi dut».

Maria Jesus TELLETXEA | IGANTZI

«Errutina batera ohituta zaude eta bat-batean hori ez dago, aldaketara ohitu beharra dago»



Duela 26 urte ireki zuten eskolako jantokia eta hasiera hartatik, irail hasiera arte Maria Jesus izan da bertako sukaldaria. Pixkanaka bere eskubideak «borrokatuz» joan da lan baldintza hobekien lortzen «nagusi bakarra eduki ordez, nagusi asko nituen eta horrek gauzak lortzea zailtzen zuen». Hasierako urteetan ume gutxi zirenez, lau orduz egiten zuen lana baina «ume gehiago joaten hasi ziren eta hondarrea 40 inguru ziren eta sei orduko lanaldia jarri zidaten». Lanaldi horren baitan erosketak egin, sukaldatu, zerbitzatu, harrikoak egin, garbiketak egin eta erosketak egitea ere bere ardura zen «barazkiak askotan etxeko baratzeetatik eraman nituen, sasoiak sasoiak». Urtarrilean bete zituen urteak, baina ikasturtea bukatzea erabaki zuen. Momentua hala ere «ustekabea» ailegatu zitzaioala dio «korapilo bat jarri zitzaidan barrenean. Ongi ari naiz egiten, gaizki ari naiz egiten... galdetzen nion buruari. Banekien beste batek bete behar duela nere lana, baina ni egon naizenez hasieratik... Ez dut bertzerik ikusi eta lanbidea nerea balitz bezala sentitzen dut. Erretiroa hartutakoan ere

«pena sentitu» zuela aitortzen du, «umeak hain dira jatorrak! Erlazio estua sortzen da sukaldarion eta beraien artean. Erosketak egitera dendara joandakoan ere jendearekin elkartzen zara... » Irailean kosta zitzaion gehien, «udako oporretatik bueltatuta lanean ez hasi beharra. Zer da hau? Zein gauza arraroa? Errutina batera ohitua zaude eta bat-batean hori ez dago. Aktibitate eta lan pila ditut egiteko baina

ALDAKETAREN UNEA
«Korapilo bat jarri zitzaidan barrenean. Hainbeste urtez sukaldari aritu ondotik, lanpostu hura nerea zela sentitzen bainuen».

ez da berdina». Gauzak egiteko orduan ere, orain beste erritmo bat duela iruditzen zaio «lehen etxeko lanak, kanpokoak... denak egiteko denbora izaten nuen. Orain berriz, askotan ezin ailegatuz ibiltzen naiz...». Ez da harrizkoa, zenbat afizio dituen ikusita, «Paris 365 elkartearen laguntza dugu, josteko makinarekin ere hasi naiz berriz josten, baratzean, eskulanean... aritzen naiz eta senda-belarren pomadak eta xaboiak ere egiten ditut. Gainera, frantses pixkat bat banekien, gaztetan ikasia, eta orain klaseetara apuntatu naiz. Sei biloba ere baditut... Horretaz gain, kotxean lrun aldera mugitzea ere gustatzen zait. Aprobetxatu beharra dago aukera dagoen bitartean».

Juanito ESTANGA | ERATSUN

«Ez dut ardi, behi edo barazerik paratzeko beharrik... aldaketa oso ongi daramat»



Mutiko kozkorra zela egin zuen lehenengoz Leitzarako bidea «azarroan 14 urte bete eta handik hilabete eta erdira, 1968ko urtarilaren 10ean, hasi nintzen Sarrio paper-fabrikaren lanean». Bertan hasi eta bertan bukatu du lan-bizitza «irailaren 30ean egin nuen azken laneguna». Ibilbide luze horretan, aldaketa handiak ikusi eta bizitzea egokitu zaiola dio «ni hasieratik hiru errelebotara lanean aritu izan naiz. Eta adibidez, gaur egun 14 urteko zein gazte aritzen da gauzez lanean?». Lanegiteko modua ere aldatu dela dio «gauri batean 1.500 langile inguru zituen fabrikak eta orain 500 azpitik». Autobusez joan izan da beti lanera eta hor nabari da jende murrizketa «hasierako urte haietan Elizondotik autobus handi bat joaten zen, Sunbillako eta Donamarikoekin beste bat eta Eratsun eta Ezkurakoekin beste koxkor bat. Gaur egun autobus bakarra izaten da eta kasik kasik kotxe bakarrean joateko moduan». Bidean abenturarik ere izan dute «lanera autobusez gindoazen batean, gure gupil bat galdu eta gure aurretik zihoala ikusi genuen. Izotzarekin ere komerik izan ditugu». Elurra ere «oraingo aldean asko botatzen zuen due-

la urte batzuk eta bidea itxita zegoelako gaua fabrikaren bertan pasa beharra ere izan genuen». 61 urte bete zituenean eskaini zioten jubilatzeako aukera eta egin beharreko ordu guztiak sartuta, irail hondarrea hartu zuen erretiroa. «Ehizara joateko primeran etorri zait, horixe dugu gure ilusioa eta udazkenean ere kategoriako egin duenez, momentuan aldaketa ez zait batere kostatu». Erretiroa hartuta asko artza-

OHIKO GALDERA
«'Laketzen al haiz?' galdetzen didate eta erantzuten diet onera laixter ohitzen dela bat. Ez dit burukomin handirik eman».

in edo nekazari lanetan hasten direla ere badaki baina «nik ez dut ardi, behi edo barazerik... paratzeko beharrik, aldaketa oso ongi daramat». Orduetegi aldetik nabari du diferentzia handiena, «zortzi ordu lanean eman eta bi bidean pasatzen genituen» baina orain «egun batean libre, hurrengoan ere bai... aprobetxatu egin behar da denbora, etxekoak goxatu eta norbere afizioetarako tartea hartuz». Aldaketa «momentu egokian tokatu» zaiola uste du eta «azken urtea luze xamarra» egin zaiola ere aitortu digu, «eguna iritsiko dela dakizu eta horri begira hasten zara». Aldaketa guztiz sinisten ez duen arren, «'laketzen al haiz?' galdetzen didate eta erantzuten diet onera laixter ohitzen dela bat».



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

2015 zaharberritzen

Dударик gabe, aurtengo berri bixigarrienetakoa “Nafarroako Iraultza” izan da. Eta luzerako izan dadila, azken hamarkadotako gaitz guziak ez baitira lau urtez neholak ere sendatzen ahalko... bitartean, ahalke pizarrik ere ez da behar lehengoaren gainera berrehun mila euroko ate birakartik pasatzeko. Eta gizaldiz gizaldi, gerlak gerla ekarki beti, eta milaka errugabek pagatzen du horren ordain beltza. Hildakoak, ordea, ez dira egundaino berdin baloratzen. Afrikan eta Ekialde Hurbilean Parisko zorigaitzeko masakreaken gisakoak gertatu dira 2015 hilhurren honetan, baina ezin berdinak izan. Europan gizakiago bakarra, bizitza mereziago baitugu, “abertsagoak” garenez, hango hildakoek baino gradu handiagoa dugu. Gainera, abertzalekeria hanpatzeko arrazoi tristeagorik ezin. Eta finitzeko, abenduaren 20an loteria eguna eta Eguberriak aitzinatuko dituzte, eta ikatza hartzen dutenek ere turroi eta xanpainez ase eta sari potoloa irabaziko dute, ez baitu nehork galtzen, haatik, nahiago nuke Nafarroan bezala harroaldiren bat izanen balitz, bederen, orain arteko jaun-andreei burutik beheiti kaka egiten ez uzteko. Osasuna eta ahalik eta hobekien bizi!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Españolaren Eguna

Zakurrei eta haurrei espainolez, baina gainera koan denok euskaraz ederki egiten dugun herrian bizi naiz. Ostatuan edo ikastolako guraso-bileran gaztelaraz sueto solastu arren, ni hurbiltzen naizenean euskaraz hitz egiten dute baztertua sentitu ez nadin; Kastillanotegian izena ematekotan egon naiz, baina zertarako? Total, denek euskaraz ulertzen dute! (Diskriminatua nago, hori bai).

Nabarmentzekoak



Alazne UNTXALO
Xalto Sariketan txapeldun

Bi urtetik behin Goizuetan egiten den Xalto Bertso sariketan txapeldun suertatu zen bertsolari iturendarra. Zazpi bertsolari aritu ziren eta buruz burukoan Saioa Alkaizarekin aritu zen.



Patziku PERURENA
Liburu berria argitaratu

Azken 300 urte inguruan, Leitza eta inguruetan gertatu diren heriotza bortitzen berri jaso du Leitzako idazleak, Elkar-en eskutik argitaratu eman duen *Hilen xarma* bere azken liburuan.



Donato LARRETxea
Azken apostuaren aitzinean?

Arria Varen kontrako apustua jokatu du Donatok abenduaren 20an eguerdian Tolosako zezen plazan. 24.000 euro jokoan eta hogeik kanaerdiko ebaiki beharko dituzte.

Atzera begira → 2005-XII-22 / TTIPI-TTAPA 412 zk.



Maddi egotetxean sartzeko prest zeuden Berako Uxaneakoak

Gobernuaren hitzarmenaren zain, duela hamar urte dena prest zuten Berako Maddi egotetxean sartzeko. Burmuin elbarriendako erresidentzia eraikia zuten Beran eta Isabel Pardo Uxaneako arduradunak zioenez, «frigorifikoan janaria izan ezik, hasteko behar den gainerako guztia daukagu!». Aspace eta Bortziritako udalen laguntzaz gain, Etxalarko Patxi Barandiaran *Exkuturen* eskuza-baltasuna ere azpimarratu zuten: «Bere emazte zen Maddi Txoperenaren omeenez egin nahi izan du ekarpen hori eta honela, Maddi egotetxea izena jarri diogu erresidentziari». Uxaneako ikasleak *hotelera* sartzeko irrikitan zeuden.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.eus**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Alzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebexa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEK NA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Mikel Zabalza Endarlatsan

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Non zinen orain dela 30 urte? Aspaldiko kontuak dira horiek. Baina oroituko zara prentsan eta telebista guzietan zer gai ateratu zen orduan. Guardia zibilek preso hartua zuten mutil baten izena ikasi genuen orduan: Mikel Zabalza, Orbaizetakoa.

Erran ziguten gauaz ekarri zutela Endarlatsara, arma-zulo bat erakustera, eta gazte hark ihes egin ziela eskuak loturik salto eginez putzura. Haren lagunak eta Gurutze Gorriko espezialistak bilaka hasi, eta han ez zen gorputzik ageri, ez ur gainean ezta ur azpian ere. Jende guzia galdeka: non dago Mikel? Eta kontestarik ez. Hogei egunen buruan agertu zen Bidasoan. Nola zen hura posible, ez bazuen norbaitek han espres utzi?

Inork ez zuen sinetsi bertsio ofiziala. Ez zen sinesten ahal. Denek uste dute dudarik gabe Intxaurrendoko kuartelean hil zutela torturen bidez, eta harat eraman zuten berberak bota zutela gero uretat. Zergatik kontu ote zuten hainbertze egunez? Ez ote ziren ibili zer egin pentsatzeko? Beharbada bakarren batek nahigoko zuen bi urte lehenago kuartel horretako agintari berberak Lasa eta Zabalarekin egin zutena egin, arrastorik ez uzten saiatu. Gorputz hilak ere egiten ahal baitu solas.

Urteak joan urteak etorri, zer gertatu zen zekitenek eta esplikazioak eman behar zituztenek ez dute kasua argitu nahi izan, eta familiak hameka saio egin ditu tribunaletan egia eske. Oraindik ere hala segitzen du, amore eman gabe. Medikuei forrentse eskarmentu handikoak ere ari dira lanean, eta denen artean agian ere lortuko dute zinez gertatu zena frogatzea.

Ikaragarria da. Zu eta ni bezalako pertsona bat bizirik hartu zuten, nork eta gure segurtasuna begiratu behar dutenek, eta gorputz hil bat ekarri bueltan. Eta inork ez du horregatik fitsik ordaindu behar izan. Deus ez du balio batzuen biziak.

Estatua behartua dago egun haietako tunel iluna argitzera eta Mikel Zabalzari egin ziotena aitortzera. Baina zerbait gehiago beharko da hemen, kuarteletan eta komisarietan preso hartzen dutenari zernahi egitea ez izateko libre, orain gehienetan izaten den bezala.

«Ikaragarria da. Zu eta ni bezalako pertsona bat bizirik hartu zuten, nork eta gure segurtasuna begiratu behar dutenek, eta gorputz hil bat ekarri bueltan. Eta inork ez du horregatik fitsik ordaindu behar izan. Deus ez du balio batzuen biziak»

BIDAZIREN TXOKOA

Eta bihar hasiko bagina?

BIDAZI ELKARTEA

Zer gertatuko litzateke gure bizilagunari barazkiak erosiko bagenizkio? Eta auzoko abeltzainari haragia? Eta bertako irinarekin egingen bagenu ogia? Gauza aunitz aldatuko genituzkeela!

Eta gure kontsumo ohitura ero hauen inguruan pentsatzeko jarriko bagina?

Nola da posible, ekoizle bati produktu bat ekoizteak 20 xentimo kostatzea, berari honegatik 10 xentimo pagatzea, eta kontsumitzaileak 50 xentimo ordaintzea? Non dago tranpa?

Ezagutzen dugu egunean (gutxienez) hirutan jaten ematen digunaren aurpegia? Nor da? Nola ekoizten du? Non? Galdera hauek gure buruei pausatuta, zenbat gauza aldatuko genituzke? Zenbat lanpostu sortuko? Zenbat harreman (hartu eta eman) sortu? Nola hobetuko litzateke gure osasuna?

Iraungo duen iraultza lortuko genuke.

Eskualdea eraldatuko genuke, eta baratzetik platerera elikagaiak egiten duen bidearen jabe bihurtu. Ez genuke bi egunetan lortuko, baina bihar hasiko bagina, zer moduz? Zorionez, gero eta kontzienteago gara bertako produktuek kontsumitzea garrantzitsua izateaz gain onura handiak ekartzen dituela sozialki, ekonomikoki eta baita ingurumenari dagokionez ere.

Sozialki, harreman justuagoak eta konfiantza-sareak sortuko genituzke. Jakinen genuke nork, noiz, non eta nola egiten dituen gure barazkiak, gure zerealak, gure haragiak, gure esnekiak, gure arrautzak, sagardoa.... Aurpegia jarriko genieke eta ezagutuko genituzke Jon, Lourdes, Ander, Patricia, Aitor, Miren, Mikel... Eta jakinen genuke, ordaintzen duguna haien zainketa dela. Bisitatu ahal izanen genituzke haien baserriak, ogi-tailerrak egin, erre-zeta goxoak egiten ikasi... eta abar!

Eta ez hori bakarrik! Bertako ekonomia bultzatuko genuke, lanpostuak sortu, ekintzailetasuna bultzatu, gure paisaia hobetu, ura, lurra, haziak... jakituria eta zainketei arreta eman... eta elikadura osasuntsu baten bidez, gu ere aunitzez hobe biziko ginatke.

Iraultza haundien edota gobernuen esperoan egon gabe, norberaren ohiturak aldatzetik hasi behar dugu, aldaketa itxi aunitzekin lortuko baitugu iraultza. Guzti hau posible egiten laguntzeko, Bidasoaldea-Xareta alde honetan Bidazi elkarteak dugu, herritarrok poliki-poliki aitzinera ateratzen ari garen proiektua. Leitzaldean ere LeitzEKOko lagunak ere hor dabilta. Hurbildu eta ezagutu. Hasi iraultza zureganetik.



Irakurleak mintzo

Bihotzkada
Kolektiboaren
aldarrikapenaGabriel UNSION (Lesakako
Bihotzkada Kolektiboaren izenean)

Herriko artista eta artisau kolektibo gisa, Lesakako kulturetaren kide eta herritar garen heinean, Jose Luis Etxegarai alkateak paratzen dizkigun etengabeko traben zein azkenaldian bere aldetik jasan behar izan ditugun erasoen aitzinean, protestatzen dugu.

1. Alkatetzak bultzaturiko Inposaketa Diktatoriala eta Irabazitako Eskubideen Galera dela-eta.

Harriondoa kultur etxeko guneen kudeaketarako asanblada deuseztatu dute, erabiltzaileen iritziei entzungor eginez. Harriondoaren kudeaketa orokorrerako asanblada deuseztatu dute, modu berean. Kultur etxea erabili ahal izateko hautapen-sistema elitista eta bidegabea paratu dute martxan. Kultur Etxea erabiltzerako orduan kontrol-neurri eta traba ugari ezarri dizkigute, bai ordutegiekin, baita hainbat toki erabiltzeko ere. Azkenean, bota egin gaituzte. Ekin-tzak antolatzeako ordutegia, turismo bulegoaren lan-ordutegietara murriztu digute. Kultur Teknikariaren zerbitzuak arrazoirik gabe ukatu dizkigute, bere lanpostuan aurrikusiak dauden gauzetarako gainera, erakusketen zaintza, errate baterako.

2. Alkateak gure kolektibo-erakikoa izan dituen etengabe-

ko errespetu faltak salatzen ditugu.

Kolektibo gisa, herriko Arte eta Artisautza jarduerak garatu eta sustatzeko elkargune gisa aritzea izan da gure asmo bakarra. Hala izanen da aurrerantzean ere, inolako irabazi-asmorik gabeko ekintzak sustatzen segituko dugu, onuradun bakar gisa herria bera izanen duten ekintzak, hain zuzen.

Gure ibilbidean, "Gure artea, denon artean" Udaberriko Azokaren bi edizio eta abuztuko erakusketa antolatu ditugu. Honez gain, kolektibo gisa, gaur egun Konbentuan dagoen Erakusketa Gela errealtate bilakatzeako auzolana proposatu, antolatu eta bultzatu dugu. Ez dugu ulertzen, zergatik orain, alkateak, erakusketa gela erabili ahal izatea ukatzen digun, arrazoirik gabe, ez baitago inolako programaziorik bertan.

Ez dakigu zergatik ez gaituzten kontuan hartu erabili ditugun espazio publikoak kudeatzeko orduan. Hiru urte daramatxagu biltzen (lehenbiziko Alhondigan eta gero Harriondan), eta esparru horiek ezinbertzeko izan dire herrian dauden mural gehienek sorrerarako. Honez gain, leku fisiko bat egoteak, herriko hainbat gazte artisautzaren munduan murgiltzea ahalbidetu du, baita Lesakatik kanpora ateri diren hainbat artelanen sorrera ere.

3. Esparru Publikoen erabilerarako traba guziak kendu daitezkeen aldarrikatzen dugu.

Erakusketa Gela erabiltze-

ko baldintzak etengabe aldatu zizkiguten pasa den abuztuan zehar. Komuretarako sarrerak itxi zizkiguten, eta irekiera orduak Kultura Teknikariaren ordutegira mugatu zizkiguten.

Abendurako Artisau azoka bat antolatu nahiean, Erakusketa Gela erabiltzeko eskaria sartu genuen, baldintza guziak betez. Instalazio honen erabilera, arrazoirik gabe ukatu zaigu.

Geroa Bairen eraso
larria euskararen
kontra LesakanMaider ARRIETA (Lesakako EHBil-
duren izenean)

Geroa Baik euskararen inguruan hartutako erabaki larrien aitzinean, Lesakako EHBildutik honakoa erran nahi dugu: harrigarria iruditzen zaigu Geroa Bairen udalak herriko Euskara Plana kentzea eta UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatetik ateratzea bertzelako alternatibarik planteatu gabe. Horrekin, Lesaka tresnarik gabe utzi du euskaldunon eskubideak babesteko. Jose Luis Etxegarai alkateak behin eta berriz aipatutako arrazoietatik bat bera ere ez da egia. Euskara Plana Lesakara egokituta dago, eta itzulpen gastu bakarra izan da PNVk berak eragindakoa, plana gaztelerara itzultzea exijitu zuelako. Kanpotik ezarritako zer-

bait dela errateak bereziki arduratzen gaitu, uste baikenuen alkate izanda Etxegaraiak plana guttienez irakurriko zuela. Bere adierazpenek erakutsi dute, ordea, ez duela ezagutzen orrialde horietan idatzita dagoena. Bereziki kezkarria egiten zaigu politikari bezala esperientzia luzea duen pertsona batek halako ignorantzia eta inkompetentzia erakustea gai horrekin. Nola ez da gai ulertzeko euskararen kontra hartu duen erabaki batek nahi edo ez oihartzuna izan duela Euskal Herri osoan? Gainera, noiz eta aurten: PNV Lesakan Geroa Bairen ize-
nean aurkeztu denean, eta Geroa Bai buru duen aliantza batek UPN gobernutik kendu duenean, UPN 20 urte egon eta gero euskarari egurra ematen. Hain zuzen, Nafarroako Geroa Baik ere zerbait erran behar lukeela iruditzen zaigu, UPNren politikei buelta emateko lanean hasi baita gobernu berria. Horregatik, hagitx zaila da ulertzea Lesaka beza-
in herri euskaldun batean horrelako astakeriak onartzea. Bukatzeko, erran nahiko genuke pasatakoa pasata ere EH Bildun lesakarron hizkuntza eskubideen alde lanean segitze-
ko asmo tinkoa dugula, eta, horretarako, gure esku dauden baliabide guziak erabiliko ditugula. Geroa Baik bere hizkuntza politika zein den argitu nahi ez badu ere, guk argi dugulako euskara gabe Lesaka ez litzatekeela Lesaka izanen, eta lesakarron hizkuntzan bizitzea gure eskubidea dela-
ko.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**
Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Prentsatik bildutakoak



«Hitzaren maisu-mais-
tra xahar zokoratu
horien kontuak jaso-
tzen hasi banintzen
hasi, segituan ohartu
nintzen heriotzak leku
berezia hartzen zuela
haien oroimenean.
Bai, horixe duzu
heriotza: hitzak mila
modutara humaniza-
tutako lurra bere
osoan. Edo, hobeki,
hitzak mila modutara
'edertutako lurra'
esan behar ote
nizun?».

Patziku PERURENA
Leitzako idazlea
D. VASCO • 2015.11.24



«Kiroletan hasi eta
gero heldu zen euska-
rarena. Kuadrillarekin,
lagunekin, dena beti
euskaraz egiten zen
eta niri ez zitzaidan
batere gustatzen itzul-
tzailea eduki behar
izatea. Gauzak nire
kabuz ulertzea gusta-
tzen zait eta horrega-
tik sartu nintzen eus-
kaltegian. Oso jende
atsegina ezagutu
nuen eta haiekin
sagardotegietara joa-
ten gara...».

Xanta SOUSA SANTOS
Lesakako kirolaria
ARGIA 2015.11.29

11 galdera labur

Nor da Mikel Santxez?

21 urteko mutil gazte ameslaria,
musika asko gustatzen zaiona eta
irri batzuk bota eta ongi pasatze-
ko jaioa.

Zein da olentzero lehiaketa ira- bazteko sekretua?

Nik uste goizean goiz egindako
gosarian dagoela eta gosari on-
doko bi sagar kopatan, kar-kar...

Olentzeroari falta ezin zaion ezau- garriren bat?

Boneta, bizkar-
larrua, zatua eta
lokainka eder ba-
tzuk...

Musikaria izateak abantaila izanen du Eguberrietako kantak abeste- rako orduan...

Nik uste dexten-
te laguntzen
duela, bai.

Aurten aurkez- teko asmorik al duzue?

Aurkezteko asmoa
dugu bai, ideia ba-
tzuk baditugu, bai-
na oraindik haste-
koak gara.

Zer da Eguberrie- tatik gehien gus- tatzen zaizuna?

Familia eta lagunetik sortzen den
elkartasuna.

Eta gutxien?

Olentzero lehiaketa aurreko ner-
bioak.

Eguberrietako menurik idealena?

Menurik idealena... ez dakit.. foie
frexkoan zegok koxka! (kar-kar)

Zein ospakizun duzu gustuko gabon gaua edo urte zaharra?

Gabon gaua nahiago dut, egun
polita izaten delako, olentzeroa
prestatzen egondako denborak
bere fruitua ematen duelako
eta familia eta lagun artean
pasatzeko egun polita dela-
ko.

Nolakoa izan da 2015a?

Orokorrean oso
ona izan da, entre-
tenigarria. Hainbat
talderekin ibili naiz
plazatik plazara eta
oso momentu onak
bizi izan ditut, asko
eskertzen dut
hauen laguntza.

Urte berrirako as- mo edo desiorik?

Musikaren munduan
gehiago murgiltzea, hau
bezain urte ona izatea eta
guttinaka guttinaka ikas-
ten joatea.



Mikel SANTXEZ ETXEGIA → Lesakako gaztea



sarobe®
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net



MARTIX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak



LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA



**Gabonetako
deskontu bereziak
eguzkitako betaurrekoetan**

%20 %30 %40

abenduaren 9tik
urtarrilaren 5era

Ostargi optika

OPARI TXARTELA
Zure esku

Bea Artola Ferran Optiko-optometrístia kol.zk: 9812
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753

BORTZIRIAK

GIZARTEA → AZAROAREN 26AN

148 azienda eder plazaratu zituzten Lesakako ferietan

77 zaltabere, 65 behi eta sei ahari aurkeztu zituzten lehiaketara

Aitor AROTZENA

148 azienda aurkeztu ziren azaroaren 26an plaza ingurura, Bortziriako feria egunean parte hartzera. Horieta-rik 77 zaltabereak ziren, 65 behi, batzuk bere aretzearekin eta zezen-oren bat eta sei ahari. Bezperako eguraldi nar-rratsa ikusita, eguraldi polita gelditu zen goi-zean, ateri behinipein, eta jendetza bildu zen karriketan.

Haragitako behien kategorian bi lehenbizi-ko sariak, 190, 160 eu-rokoak, Berako Begi-beltzenekobordako

Joxean Igoa Etxebeste-rentzat izan ziren eta hi-rugarrena, 100 eurokoa, Maribel Indarentzat.

Suitzen kategorian, 190 euroko lehen saria eta 160 euroko bigarre-na, Gillenbordako Fran-cisco Javier Altzugarai-ren bi bururentzat izan ziren. Hirugarren saria, berriz, 100 euro, Bera-ko Begibeltzenekobor-dako Joxean Igoak es-kuratu zuen.

Zaldi-aziendetan, 125 euroko lehen saria Bi-xente Arozena arantz-a-rrarentzat izan zen eta bigarrena eta hirugarre-na, 95 eta 50 eurokoak, Lesakako Joseba Iri-goienentzat. Azken urteetan bezala, potto-ka, montura eta ponni onenak ere saritu ziren. Honela, Joseba Irigoi-en berak 100 euro es-kuratu zituen pottoka



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Plazaratu zituzten azienda ederrek ikusmina piztu zuten.

onenarengatik, Maribel Indak 80 euro bere mon-tura behorarengatik eta Francisca Otxoteko be-ratarrak 70 euro ponni onena plazaratzeaga-tik.

Aharietan, sei buru aurkeztu zituzten. Le-hen saria (50 euro) Gi-llenbordako Francisco Javier Altzugarai-aur-keztutakoarentzat izan zen eta bigarren eta hi-rugarren saria (30 eta 20 euro), Arantzako Dani Lukanbioren bi buru-rentzat.

Aziendaz gain, elika-gai eta eskulangileen postuak hedatu ziren herri guztian barna. Tan-turumairu ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek paratutako Tantiruden-dan bildutako kasik 400

euroak Saharaztan el-karteari eman dizkiote aurtan, Saharan uhol-deek sortutako kalteak moldatzen laguntzeko. Elkartasun zozketako zerria, berriz, 0661 zen-bakiari egokitu zitzaion. Abenduaren 13a izanen da saria eskuratzeko azken eguna. Inor aget-zen ez bada, 0501 zen-bakia izanen litzateke ordezkoa. Honek urte bukaera arteko epea izanen luke zerria har-tzeko.

Protestarako tartea ere izan zen. Alde ba-tetik, herriko artista eta artisa-ak biltzen dituen Bihotzkada Kolektibo-ak *performance* bat egin zuen, «alkateak para-tzen dizkigun etenga-beko traben zein azke-

naldian bere aldetik ja-san behar izan ditugun erasoan aitzinean».

Pilota partidetan, Mi-kel Goñi eta Paskualek 25-24 irabazi zieten Mi-kel Olazabal eta Jon Olaizolari eta lau eta er-diaren barrenean, Eli-zalde 22-20 irabazi zion Eskuderori.

AJOARRIERO LEHIAKETA

Beti Gazte elkarteak feria bezperan antola-tzen duen ajoarriero le-hiaketara 13 bikote aur-keztu ziren. Lehenbizi-ko saria, Juan Luis Ka-lixa Otxoteko eta Itsas-ne Otxoteko aita-alabek lortu zuten, bigarrena Idoia Telletxea eta Pau-la Garciak eta hiruga-rra Jabier Zubieta eta Iñigo Aranetak.

TXIMISTINDAR
 INSTALACIONES ELECTRICAS

Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab | T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046
 jmandueza@tximistindar.com | jmiriarre@tximistindar.com

- ETXEKO INSTALAZIOAK
- INSTALAZIO INTELIGENTEAK (DOMOTIKA KNX SISTEMA)
- Partner Zenbakiak: 37050 eta 43139
- Gastua optimizatzeke zure argindarraren faktura berrikusiko dugu
- Eta orain PROIEKTU ELEKTRIKOAK Kolegiatu zenbakia: 3868

AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

GIZARTEA → ABENDUAREN 19AN ANTOLATU DUTE SAIOA LESAKAKO HARRIONDOA KULTUR ETXEAN

Haurren beharretan zentratutako arreta landuko du Osasun Zentroak

Urte hasieran lehen sorospenei buruzko jardunaldia prestatzekotan dira

TTIPI-TTAPA

Testuinguru naturaletik abiatuta, haurren beharretan zentratutako arreta landuko da abenduaren 19an Lesakako Harriondoa Kultur Etxean.

Egun osoko egitaraua antolatu du Bortzirietako osasun zentroak oraingo honetan. Aurora Carbonell terapeuta okupazionalak emanen du saioa, haurren inguruko terapietan hainbat teknika eta lan moduetan formazio



UTZITAKO ARGAZKIA
Haurren inguruko terapietan hainbat teknika eta lan moduetan formazio zehatza duen Aurora Carbonellek emanen du saioa.

zehatza duena, baita etxeko animaliekin ere. Naturaren inguruan familia eta haurren garapenean zentratutako disziplina anitz landuko dira bertan.

Tailerra goizeko 9etan hasiko da eta 13:30ak bitarte kontzeptu orokorrak, haurren garapenean inguruaren garrantzia, inguru errealeko ohiturak, arazo sensorialek eguneroko

autonomian duten eragina, jarrera arazoetan arreta eta familia esku hartze tailer praktikoa landuko dira.

Jardunaldia goiz eta arratsaldean izanen denez, bertan bazkaltzeko aukera egonen da, eguneko menua eskaintzen duen jatetxe batek ekarriko baitu janaria. Elkarrekin indarrak berriro eta bidenabar esperientziak partekatze-

ko aukera izanen da otorduan.

Bazkariaren ondotik, animaliekin ekintza terapeutikoa landuko da. Esku-hartze metodoak, profesionalen betebeharrak, nori zuzendua eta kontraindikazioak eta animaliak baliabide terapeutiko gisa ataletan banatu da 15:30etik 18:30era antolatu den arratsaldeko saioa. Amaitzeko tailerra egi-

nen da, ekintza terapeutikoa txakurrekin eta haurrekin.

Izen emateko azken eguna abenduaren 15a da. Kurtsoak 10 euro balio ditu eta bazkaltzera geratu nahi duenak 15 euro ordaindu beharko ditu. Izen emateko orria eta ordainagiria Bortzirietako edozein osasun etxetara eraman edo cs/lesaka@cfnavarra.es helbidera bidali beharko da.

URTE BERRIAREKIN, IKASTARO BERRIAK

Urtea amaitu arren, tailer eta jardunaldi berriak izanen dira urte berriarekin batera. Urte hasieran lehen sorospenei buruzko jardunaldia egingen da eta martxo-apiril aldera, berriz, haurren garapenean inguruko tailer bat egiteko asmoa dago.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta

Saraguet
aholkularitza
;
abokatu bulegoa

Iparalde karrika 5, behea
31780 BERA · 948 625 162
fsaraguet@abokatua.com

ERRENTA KONTRATUETAN EPEEI BURUZKO ERAENTZA

aholkuak

Errenta kontratuen epeei dagokionez, honakoak dira oinarritzko eraentzak, kontratu bidez bertan behera utzi ezin daitezkeenak:

1. Guttieneko epea. 3 urte baino guttiagoko epea duten etxebizitza erabilerako errenta kontratuaren, 3 urterarte etxebizitzan irauteko eskubidea du errentariak. Epe laburragoko klausulek ez dute efekturik sortzen, errentariak horrela nahi ez badu, 3 urterako luzapen eskubidea baitu errentariak.
2. - Bertan behera uztea. Errentariak kontratuaren lehendabiziko 6 hilabeteak igarota edozein unetan bukatutzat eman dezake kontratua, amaiera epea baino 30 egun lehenago jakinarazpena burutuz gero. Kontratuan ezarri daiteke adostutako iraupen urte bakoitzeko hilabete bateko penalizazioa ekarri dezakeela horrek. Ez dago beraz errentaren lehendabiziko urtea derrigorrez betetzeko obligaziorik, aipatu ondorioekin.
Errenta emaleak aldez, behar bereziko legezko kasu tasatu batzutan berreskuratu dezake etxebizitza kontratuaren 1. urtea igarota, eta 2 hilabeteko aldez aurretiazko jakinarazpena burutzen badu.
3. - Legezko luzapena. 3 urteko epea igarota, aldeek ez badute kontratua eteteko borondaterik adierazten, urtebetez luzatuko da legez kontratua.
4. - Etxebizitza erabilerarako ez diren kontratuak. Negozio zein denboraldi baterako kontratuaren, aldean arteko adostasunak eraenduko du.

ZURE GALDERA EGIN EZAZU!!
fsaraguet@abokatua.com

BERA

KULTURA → URTEA AGURTZEKO

Eguberrietako emanaldiak prest ditu Musika Eskolak

Kontzertua hilaren 16an izanen da

TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoagoa Udal Musika Eskolak, ohiturari eutsiz, musika emanaldiekin agurtuko du urtea. Eguberrietako kontzertua eskainiko du abenduaren 16an, asteazken arratsaldeko 6:30ean Kultur Etxean.

Entzunaldiak ere eskainiko dituzte Musika Eskolan bertan (14an pianoa, 15ean biolina eta 18an trikitixa eta akordeoia), denak arratsaldeko 6etan. Abenduaren 26an Bera Kantari izanen da, Illekuetatik aterata.

BERTZE KULTUR EKITALDIK

Abenduaren 24an, Olentzero ailegatuko da



ARGAZKIA: ANGEL PONBAR

Luis Irazokiri Kirol Merituaren domina

2015eko Kirol Merezimenduen 17 Zilarrezko Domina eta 4 aipamen berezi eman zituen abenduaren 2an Nafarroako Gobernuak. Zilarrezko Domina bat Luis Irazoki herritarrek jaso zuen, Gure Txokoa klubeko futbola sustatzen 27 urtez egindako lanagatik. Ongi merezitakoa, dudarik gabe!

17:00etan Herriko Etxeko Plazara eta Urtezharr egunean Glin-Glan eta Diostesalbe kantari ibiliko dira herriko karraketan barrena.

Horrekin batera, abenduaren 11n, ortzira lea 17:30ean liburutegian, 3-6 urte arteko haurrentzat *Olentzero datorrela* ipuin saioa es-

kainiko du Isabel Milletek eta 17an, *Sin piedad* liburua aurkeztuko du Fernando Mikelarenak 19:00etan Beralandetan.

JAIONE-COXOTEGIA

948 630 786
Altzate, 21 • BERA

Garbi ogi & coffee
KAFETEGIA • OKINDEGIA

• Urteberri egunean irekia: 10:00-14:00 •

Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 673

FRANDONEA, s.l.
PREMIER DE BARBERAN

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arturo

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

2015eko Urte Zahar Gaueko Menua
Guijuelo JD urdajazpiko iberikoa
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin
Ganboiak plantzan

Itsaskiz betetako legatza
amerikar saltsarekin

Idi-azpizuna chip patata, Padrongo
piperra eta foie saltsarekin

Etxeko kremazko tutuxoak, txokolate
bero eta limoi-izozkiarekin

Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotilo poltsa

Gran Irache ardo ondua, Irache lagrima ardo
gorria, Las Campanas Chardonnay ardo zuria,
Codorniu Brut cava, kafea eta likore kopa

Prezioa: **72€** BEZ barne

Foruen plaza • BERA • T. 948 625 542 • T. 948 62 55 40
www.hotelchurrit.com

Itsasoa hurbilago!

amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757
Itzea, 6 • BERA • NAFARROA

Y OAN
PELUQUERIA
ILEA PAINDEGIA

Bidasoa, 8 BERA
T. 948 63 01 77 (ile-apaindegia)
T. 948 63 14 48 (estetika)

OPARI TXARTELA
Zure esku

%10eko
deskontua
opari txartela
erosten duenari

GIZARTEA → AHOBATEZ ONARTU DUTE

4,86 milioi euro izanen ditu udal aurrekontuak heldu den urtean

TTIPI-TTAPA

Udaleko Osoko Bilkurak azaroaren 19an aho batez behin behinenez onartu ditu 2016rako aurrekontuak, EH Bildu, Herrirako eta UPNko zinegotzien aldeko bozkekin. 4.861.335,72 eurokoa izanen da aurrekontu osoa, 2015koa baino %5 inguru handiagoa. UPNko Juan Losa zinegotziak adierazi zuen «zenbait kontu-sailekin ados ez egon arren konfiantzako botoa ematen diola».

2015ean ez du mailagurik eskatu Udalak eta hala nahi dute segitu. Josu Iratzoki alkateak azaldu zuenez, «Nafarroako Gobernuaren diru-ekarpena gero eta murriztagoa da eta gaur egun ez da %10era ailegatzen» eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan gai hau lantzeko batzorde bat sortu dute.

Inbertsioen atala, 1.838.058,55 eurokoa izanen da aurtén. Diru horren ia zati osoa, aurtén hastekoa zen baina azkenean Lesaka eta Berako Udalek elkarrekin 2016an gauzatu asmo duten ur-hornidurarako plan zuzendarira bideratuko da. Baina, alkateak aipatu zuenez, obra hau Azpiegitura Planetik atera dute eta oraindik ez dago ziur 2016an ere egingen den. Egitasmo osoaren au-

rrekontua 1.456.558,55 eurokoa da (gehi BEZa), Nafarroako Gobernuaren %90eko dirulaguntza izanen luke, gainerakoa ordaintzeko bi udalen artean adostu dute, Lesakako Udalaren ekarpena %3,5a izanen da eta Berakoak, berriz, %6,5 hartuko du bere gain.

Udal Hirigintza planaren berritza 215.000 euro erabiliko dira eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Lesakako Abesbatzaren emanaldia Altzateko elizan

Lesakako Abesbatzak, Marisol Perezen zuzendaritzapean, emanaldi bikaina eskaini zuen azaroaren 28an Altzateko elizan. Lehenik mezan kantantu eta gero kontzertuan abestu zuten lesakarrekin.

horretarako hitzarmena sinatuko dute Nafarroako Gobernuarekin, dirulaguntza %80 ingurukoa da; ur sarea eta zoladura berritzeko

80.000 euro eta Eztegarako frontoia moldatzen 30.000 euro. Pilotalekuaren obraren zati bat egiten ari dira orain eta datorren urtean gehia-

go, egingen dira instalazioa ongi aprobetxatzeko. Aipatzekoa da auzolanetarako materiala ordaintzeko diru-sail bat ere izanen dela.

Luahi Nuria
ileapaindegia • estetika zentroa • solarium

aurpegi eta gorputz tratamenduak
manikura eta pedicura esmaltatu permanentea
laser depilazioa • makilajea
bekainetako permanentea

OPARI TXARTELA
ZUKE ESKU

LUAHILILEAPAINDEGIA | NURIA ESTETICA
EZTEGARA KALEA, 20 · BERA · 948 625 742
ESTETIKA · 948 625 413

Kotoi
Kortinak
Estoreak
Ettxerako ehungintza
eta osagarriak

Bidasoa karrika 14 · 31780 BERA
T./F. 948 631 660

SMAZIZOR
edariak

EDARIEN
eta JANARIEN
SALMENTA eta BANAKETA

T./F. 948 631 557
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorenper@gmail.com

Bertan zuen gustoko opari kixak eta
produktuak aurkituko dituzue

CHAMPAGNE MOËT & CHANDON
CRESTA ROSA
Cune RIOJA
Galarriako Txakolina
Juvé y Camps
Pedro Luis conservas artesanas
BULLDOG LONDON DRY GIN
Monopole
BEMERLE
Carnha

LESAKA

KULTURA → HAINBAT EMANALDI

Musika doinuekin bukatuko da urtea aurten ere

Ilbeltzaren
16an
Nafarroako II.
Trikiti jaialdia
ere egingen da

Aitor AROTZENA

Abenduko kultur agendari gainbegiratua emanez, garbi dago musikak toki zabala hartuko duela.

Abenduaren 12an, Lesakako Abesbatzak eta soinuariak kontzertua eskainiko dute Harriondoan, Beti Gazte elkartearen 75. urteurreneko ekitaldien baitan.

Abenduaren 16an, Eguberrietako kontzertua eskainiko du Musika Eskolak eta 19an, Santa Zezilia Batzordeak antolatutako Eguberrietako kontzertuak izanen dira.

Abenduaren 28an, Andra Mari Zahar Etxean kantatuko du Abesbatzak eta Urtezahar egunean *Diostesalbe* kantari aterako dira karrikaz karrika.

Urte zaharra agurtu ez ezik, berriari ongi etorria ere musikaz emanen diogu. Ilbeltzaren 16an, Nafarroako II. Trikiti Jaialdia herrian antolatu dute eta zazpi bikote espero dituzte Harriondoan 17:30ean hasiko den emanaldian. 2016ko lehen alean emanen dugu horren berri zehatzagoa.

OLENTZERO ETA JAIOTZA LEHIAKETA

Musika ez ezik, abenduaren 24ko Olentzero eta Jaiotza lehiaketa aipatzekoa da. Eguerdian egingen da plazan.

Bertze aldetik, Keinu Leihoak Zikloaren emanaldi gehienak joan den asteburuan egin baziren ere, azkeneko saioa abenduaren 26an, larunbatarekin, eskainiko dute 20:00etan Harri-



ARGAZKIA: TELLETXEA

Lesakako Zerbitzuen Elkarteko tonbola jendetsua

Bertze urte batez jendetza bildu zen azaroaren 28an plazan, Lesakako Zerbitzuen Elkartek antolatutako tonbolan. Hotza egiten zuen, baina halere herriarrak hila bete zehar bere erosketekin lortutako zenbakiei adi egon zen, 4.000 euroko balioa zuten sariak banatu baitzituzten.

ondoan. Zehazki, Tantarumairu Euskal Folklore Taldeak eta Mairu An-

tzerki Tailerrak *Bertso Atabikoak edo norena den basoa?* helduenda-

ko kuskizuna taularatu dute. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

GIZARTEA → AZAROAREN 27KO BATZARREAN

Euskara Plana bertan behera utzi eta UEMAtik atera da Udala

Geroa Baiko sei zinegotziek hartu zuten erabakia

Aitor AROTZENA

Euskara Plana bertan behera utzi eta UEMAtik ateratzea erabaki zuen udalak azaroaren 27ko batzarrean. Geroa Baiko sei zinegotziek hartu zuten erabakia, EH Bilduko bortzen kontrako botuarekin eta pleno aretoa *Euskaraz bizi nahi dut* zioten pankartekin bete zuten herritarren protestekin.

Lesakako Euskara Batzordeak udal plenora joateko deia egina zuen, «Geroa Baik ofizial egin zuen erabakiak lesakarren hizkuntza eskubideei kalte handia» egiten diela uste baitu.

Euskara Batzordeak dioenez, «Euskararen Planik gabe, ez da bermatuko Udalarekin eta bere zerbitzuekin (Zahar Etxea, kiroldegia, jubilatuen ostaua, frontoia...) izaten diren harremanak euskaraz izatea». Jose Luis Etxegarai alkateak, aldiz, uste du «praktikan ez dela aldaketarik izanen, Udalak orain arte bezala funtzionatuko baitu eta inork ez du egunero tratuan inolako aldaketarik somatuko udaletxean».

Euskararen Normalizaziorako Planaren helburua arlo guzietan euskara udalaren hizkuntza izatea da, baina alkatearen erranetan «kanpotik inposatua zetozen, Lesakaren beharrik ikusi gabe». Hori betearazteko presio handiak jaso dituela ere

aipatu du eta «euskara sustatzeko, konbentzitu egin behar dugu eta ez inposatu», erran du. Euskara Batzordeak, aldiz, zera aipatu du: «Euskararen Planak ez du inolako inposaketarik suposatzen Udalarekiko harremana espainolez egin nahi dutenendako, planean indarrean izanik ere, inolako arazorik gabe erabiltzen ahal baitute».

Lesakako EH Bilduk gogor salatu du herria UEMAtik atera eta Euskara Plana indargabetzeko Geroa Baik hartu duen erabakia: «Euskararen aurkako eraso larria dela iruditzen zaigu eta are gehiago alternatibarik proposatzen ez dituztenean, udalak zuen euskararen aldeko neurri bakarra desegin eta deus ere ez proposatu, argi utziz Geroa

Bairen euskararekiko jarrera».

Euskara zinegotzia eta UEMako zuzendaritza batzordeko kide den Maider Arrietak aipatu duenez, «Euskara Planak egiten duen barikarra euskaraz bizi nahi dutenen eskubideak defendatzea da, urtean zapalduta egon den eskubidea eta eskubide hori da inongo lotsarik gabe ukatu diotena Geroa Baiko zinegotziek lesakako herritarrei». Lesakako EH Bilduk jakinarazi duenez, «gure aldetik, euskararen eta euskaraz bizi nahi duten lesakarren eskubideak defendatzen jarraituko dugu eta behin eta berriz salatuko ditugu Lesakako ama hizkuntzaren aurkako jarrerak».

UEMAk, herritarren %70a baino gehiago

euskaldunak dituen Euskal Herriko 73 udallerri biltzen ditu eta azaroaren 27ra arte Bortzirietako guztiak barne zeuden. Lesakako Euskara Batzordearen ustez, «eremu publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko laguntza handia da bertze udalerrri euskaldunekin elkartzea».

Jose Luis Etxegarai alkateak emandako bertze arrazoietako bat, UEMA eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen lanaren bikoiztasuna da: «Euskara Mankomunitateari 86.000 euro ematen dizkio Lesakako Udalak eta bertze 7.000 euro UEMari eta pertsonalki uste dut, diru hori baino guttiagorekin bere teknikaria eta itzultzailea izan ditzakeela Lesakak».



UTZITAKO ARGAZKIA

'Euskaraz bizi nahi dut' zioten pankartak hedatu zituzten pleno aretoan.

T. 948 627 519

www.koxkonta.es

KOXKONTA
JATETXEA | LESAKA

**URTE
ZAHARREKO
KOTILIOIA
DANTZALDIAREKIN**

65€

BEZ Barne



Koxkonta jatetxea



HASIERAKOAK:

Urdaiazpiko iberikoa

Foie sagar-konpota eta almendra gintlatzarekin

Txinlak saltsa berdean

Onddoen kurruskaria piper berde kremarekin

Otarainskak plantxan

Limoi-sorbetea cavaarekin

PLATER NAUSIAK:

Zapoa labean txipiroi risottoarekin eta
behi-azpizun medailioia ziape eta ezti saltsarekin

Postrea, ardoa, ura, kafea eta
4 lagunendako cava botila



IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 5 ETA 12AN

Eguberrietarako prestaketak hasiak dira

Olentzero, Ela eta txokolatada izanen dira ekitaldi nagusiak

Irene ELIZAGOIEN

Abenduaren 24an arratsaldeko 5etan azken urteetan bezala kalejira egingen da herrian barrena Olentzeroak, txistulariak eta trikitilariak. Ondotik 18:30ean meza izanen da. Meza ondotik Elizako arkupean kantuan aritzeko aukera izanen da eta gero frontoian herriko trikitilariak ilunabarra alaituko dute. Guraso elkarteak luntxa eskainiko die gerturatutakoiei.

Urteroko ohiturari jarraituz urtarriaren 6an arratsaldeko 17:30ean Larraburuan txokolatada izanen da gerturatutakoentzat.

Usategietako denboraldia bukatuta

Azaroaren 20an bukatu zen Usategietako sasoi. Hego haizea ibili denez, ez da denboraldi ona izan; hala ere

61 dozena harrapatzea lortu da sareetan, haueetatik 15 dozena egun bakar batean. Urteroko sasoi bukaerako besta azaroaren 21ean egin zen.

Bisita gidatuei dago-kienez, hagitz urte ona izan da, eguraldi onak jende mordo animatu baitu. Denboraldiko asteburu guztietan eskaini dira bisitak eta denora 350 lagun inguru hurbildu dira; gehienak Euskadi eta Nafarroakoak.

Aurten, Etxalarko Usategiek laugarren postua lortu dute, Pirinioetako 10 sareko



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

2015eko urrezko harrijasotze kopa

Azaroaren 22an urrezko harrijasotze kopako 5. Kanporaketa jokatu zen Otsagin Egur Sport-ek antolatuta. Xabier Ariztegi *Xantxin*, Joseba Ostolazaren aurka aritu zen kanporaketa honetan. Minutu batean 100 kiloko zilindro koparekin 17 jasoaldi, bi minutuan 100kiloko kubikoarekin 16 jasoaldi eta 2 minutuan 100 kiloko bolarekin 15 jasoaldi egin bazituen ere, ez zuen kanporaketa gainditzerik izan. Honez gain, azaroaren 26an Lesakako ferietan egin zen kirol erakustaldian ere parte hartu zuen Xabier Ariztegi.

usategien harrapaketen "ranking"-ean, normalean baino bat beherago. Lehenengo postuan, txapel handia eraman duena Napal izan da (2.151 uso), bigarre-

na Oskix (1.145), hiru-garrena Lanne (927), laugarrena Etxalar (733), Lantabat (321), Lekunberry (314), Aldude (207), Sara (126) eta bo-

neta ttikia Beorlegirentzat, 95 usorekin. Abenduaren 5ean Pirinioetako usazale guztien urteroko bazkaria ospatu zen Oskixen.



ARGAZKIA: GAIKZA BELOKI

Olaztiko rallysprinta

Joseba Beola eta Jose Luis Irazokik azaroaren 21ean Olaztiko (Urbasa) Rallysprintean parte hartu zuten eta sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuten; Garikoitz Flores eta Iñaki San Miguel txapeldunengandik 1,900 segundoko aldearekin.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Trikitilari gazteak Zaldibarren

Euskal Herriko trikitilari gazteen 24. txapelketako finala jokatu zen azaroaren 29an Zaldibarren. Ainhoa Telletxea eta Martxel Larrazak saio bikaina eskaini eta bosgarren postua lortu zuten Bizkaiko trikitixa, porrusalda, Jose Mari Iriondok egindako *Lastur* fandangoa eta arin arina joz.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

IGANTZIKO TAXIA
Mediku bisitetara | Eskoletara | Lanera
Egun pasa | Bazkari-afariak lasai egiteko
Behar duzuenetarako...
Eramanen zaituztet!
T. 717 716 209 (Ana)

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

KULTURA → ABENDUAREN 11 ETA 12AN

Bortzirietako Bertso Eskolaren taldekako hamazazpigarren txapelketa jokatu dute

Ortziralean Beran egingen da lehen kanporaketa eta gainerako saioak eta finala larunbatean Lesakan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako bertso eskolak hamazazpigarren aldiz antolatutako Taldekako lehiaketa jokatu da egunotan. Lehen kanporaketa abenduaren 11n, ortziralean arratsko 10etan jokatu da Berako Katakun. Gainerako saioak, finalerdiak eta finala abenduaren 12an egingen dituzte Lesakan. Zortzi hirukote arituko dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Giro bikaina segurtatua dago Bortzirietako taldekako bertso txapelketan.

Abenduaren 11n Katakun jokatu den lehen saioan, alde batek *Larungo Antenak* taldea (Patxi Castillo, Aitor Elexpuru eta Julen Zelaieta) eta bertzetik *Gorosterra ZU* taldea (Iker eta Egoitz Gorosterrazu eta Eneko Fernandez) ariko dira.

Abenduaren 12an, larunbat eguerdiko 12:30ean Lesakako Teletoben jokatu den kanporaketan, *Bertze Balak* (Xabier Terreros, Maddalen Lopez eta Jon Silveira) eta *Egarrituk* taldea (Josu Sanjurjo, Iban Garro eta Iturrri) ariko dira. Egun be-

rean, 14:00etan Antoiun egingen den bazkariaren ondotik, *Dinosauriuk* (Bittor Elizagoien, Juan Mari Lopez eta Etxabe) *Erratzuren* kontra (Xabier Silveira, Alazne Untxalo eta Amaia Gorosterrazu) ariko dira. Xarutan 17:00etan egingen den hirugarren

saioan, *Larungo Antenak* (Patxi Castillo, Aitor Elexpuru eta Julen Zelaieta) eta *Fashion Team* (Eneko Fernandez, Iar Tainta eta Manu Gogiana) ariko dira.

Ondotik, finalerdian txanda etorriko da. 18:30ean Haizegoan jokatu dute lehenbizikoa Teletobeko irabazleek Antoiuko irabazleek kontra eta bigarrena 20:00etan Atxaspin izanen dute, Xarutako irabazleek galtzaile puntatuenaren kontra.

Finala Arranon jokatu da. 21:30ean afaria egingen da eta ondotik finala. Afarirako txartelak 15 eurotan eros daitezke. Izena emateko bortzibertso@gmail.com helbide elektronikora idatzi edo 618963011 telefonora deitu behar da.



Aurten opariak Bortziriak-en!!



Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

ARANTZA

GIZARTEA → EGUBERRIEN INGURUAN

Urte bukaera lanez gainezka ospatuko dute eskolan

Antzezlanak prestatzen ari dira eta literatur tailerra ere egingen dute

Nerea ALTZURI

Azken asteotan eta hurrengoei begira, jarduera osagarri batzuk izanen dira eskolan.

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren harira, lan ezberdinak egin ziren urtero bezala. Bertetik, azaroaren 27an, okina den guraso baten laguntzaz, ogia egiteko tailer bat ere egin zuten haur hezkuntzako ikasleek.

Urtero bezala, eskola ikasle eta irakaleak antzezlanak prestatzen ari dira. Honako hauek dira aurtengo lanak:

- Haur Hezkuntza: Munduko herrialdeak.
- 1go zikloa: Bizitza.
- 2. eta 3. zikloak: Ura da, gu gara.
- DBH: Koreografia hizkuntza desberdinekin.

Abenduaren 16an, Igantzi eta Etxalarko eskolako lagunen aitzinean egingen dituzte. Abenduaren 18an, arratsaldeko 3etan hasita, gurasoentzako saioa izanen dute. Atsedenaldira, ikasleek etxetik ekarritako produktuez osaturiko zare eder baten zozketa egingen dute urtero bezala.

Bertetik, abenduaren 21ean, Iñaki Zubeldia idazlearekin literatur tailerra egingen dute. Lehen Hezkuntzako 1go eta 2. mailako ikasleak Basoa sutan eta Xirripin fantasmatoxa liburuen inguruan arituko dira. LH 3, 4, 5, eta 6. maila-



ARGAZKIA: GURUTZE PIKABEA

Udaletxearen atarian genero indarkeriaren kontra

Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean elkarretartzea egin zuten Herriko Etxearen atarian udal ordezkariak eta udaletxeko langileak, Genero indarkeririk ez! zioen pankartaren gibelean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jakoba Errekondok solasaldi interesgarria

Baratze kontuetan aditua den Jakoba Errekondok Baskulan solasaldia eskaini zuen azaroaren 27an eta ikusmin handia piztu zuen.

koek aldiz *Tximu bat klinikan* liburua irakurri dute. Irakurzaletasuna sustatzea du helburu jarduera honek.

Abenduaren 22an, Mari Domingi eskolara

etorriko da eta eskutitzak bilduko ditu Olenzerori emateko.

Abenduaren 24an, urtero bezala, Olentzero ikazkinari harrera egingen zaio herrian.

GIZARTEA

Osteopata zerbitzua Zahar Txokoa erretiratuen elkartearen

N. ALTZURI

Arantzako Zahar Txokoa erretiratuen elkarteak zerbitzu berri bat paratu nahi du martxan, bere bazkideentzat eta bazkide ez diren herritarrentzat ere. Pili Bergara osteopata, osteopatia zerbitzua eskainiko du. Elkarteko bazkide izan edo ez izan, zerbitzu hau hartu nahi duenak bere izena emateko telefono honetara deitu behar du: 948634 030. Lau lagunek taldea biltzen denean etorriko da Pili Arantzako Zahar-Txokora. Beti larunbat goizetan izanen da kontsulta eta pertsona bakoitzarekin, ordu bateko saioa egingen du.

Norbaitek nahiago badu bere etxera joatea, horretarako ere aukera izanen dela jakinarazi dute.

Burlada

OPARI TXARTELA
Zure esku

BEREZITASUNAK
HARAGIAK
ARRAINAK
ETXKO POSTREAK
MENU BEREZIAK
Taldea, mendizaleak,
Jaunartzeak, Banketeak

BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA
www.restauranteburlada.com

PABLOENEA

KARTA | MENUA | PLATER KONBINATUAK
BOKADILLOAK | HANBURGESAK
BEREZITASUNAK:
Etxean egindako platerak eta postreak.
Bildotsa errea.

www.pabloenea.com
Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077

KIROLA → AZAROAREN 28AN

Euskaraz Bizi Nahi Dut Lasterketa Arantzan egin dute

60 bat lagunek
aurre egin
zioten euriari
euskararen alde

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako euskaraz bizi nahi dut lasterketa egin zuten azaroaren 28an Arantzan. Ekitaldia ongi joan zen, eta aterune eta euri tanten artean 60 bat lagunek parte hartu zuten lasterketan, gehienak herriko haur, gaztetxo, guraso eta gazteak...

Bi lasterketa izanik, gehienek herrikoian parte hartu dute, plazatik Larreta auzorako ibilbidea eginez. Azkilarrea auzoko itzulia ere lasterkari batzuk egin zuten. Ekitaldia hasi aitzinetik, hamar minutuko beroketa egin zuten lasterkariek, Ana Larretxea herritarrek gidatuta: luzaketak, beso eta hankak mugitu... Korrikaldiaren ondotik, hamaketakoa ere hagitz ongi joan zen, jendeak gustura jan baitzituen



ARGAZKIA: MIKEL LARRETxea

Ttikienek ere gogotsu ekin zioten 'Euskaraz bizi nahi dut' lasterketari.

tortila pintxoak eta azeitunak; zozketak ere egin ziren, Kontseiluak eta Euskara Mankomunitateak emandako opariak dortsaldunen artean zozketatuz.

Akabailan, Imanol Lukanbio gazteak manifestua irakurri zuen.

MANIFESTUA

Idatzian galdegiten zen zergatik den gaur egun, Arantza arnasmune: «Ez da Eguzkialdeko baserriengatik, ez Bordalarreko behietar-

diengatik, ez Aientsako errengatik, ez Azkilarreko larre aski ederrengatik. Baina ezta Goiko Karrikako ostatuengatik, ezta eskolako horma eta teilatuarengatik, ezta Herriko Etxeko mahai eta aulkiengatik ere. Guri esker da Arantza euskararen arnasmune, herritarrengatik, bertan bizi garenengatik; guk ematen diogu arnasa euskarari, guri esker bizi da eroso. Hemen jaio eta euskaraz bizi denari esker, kanpotik etorri

eta euskaraz bizitzen segitu duenari esker; hona etorri eta euskaldundu denari esker; hona etorri, euskaldundu, eta orain euskaraz bizi denari esker. Ume, gazte, ez-hain-gazte eta eda-detuei esker. Langileei, ikasleei, zoritxarrez lan-gabezia gaudenoi esker. Erretiroa hartuta daudenak aiantzi gabe». Aurrera ez egitea atzera egitea omen da eta aitzinera begira urratsak ematen segitzera animatu zuten.

GIZARTEA

Haur Txokoa eskainiko dute Eguberrietako oporraldian Gizarte Zerbitzuek

TTIPI-TTAPA

Eguberrietan, familliei kontziliazioa errazteko asmoarekin, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen bidez haurtxoko edo ludoteka zerbitzua eskainiko da Arantzan, Beran, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra (biak barne). Izen ematea abenduaren 18ra arte egin daiteke, 15 euroko kuota ordainduz.

Arantza, Igantzi eta Lesakan abenduaren 24an izanen dute besata eguna eta Etxalarren abenduaren 31n. Arantza eta Etxalarko eskolatan, Igantziko Barazarrean, Lesakako Harriondoa Kultur Etxeko liburategian eta Berako Beralandetan eskainiko dute Haur Txokoa.

Izen ematea Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko 948 635036 telefonora deituz edo ssblesaka@lesaka.net helbide elektronikora idatziz egin daiteke abenduaren 18ra bitarte, 15 euroko kuota ordainduta. Haur Txokoa da haurrek beren denbora librean kulturarekin eta harremanekin jostatzeko eta gozatzeko gune bat, eta bidenabar, gurasoei aukera ematen dieten seme-alaben heziketa bateratu ahal izateko euren lanarekin edo denbora librearekin.

aterpe
albergea jatetxea ostalua

ASTEBURUKO MENUA • EGUNEKO MENUA
Instalazio berri eta modernoak • Wi-fi sare libre
Musikarik berrienak • Pintxoak eta bokatak
Kirol edota kultur emanaldiak pantaila handian
Hilabetero kontzertuak eta zuzeneko emanaldiak

T. 948 634 179 • ARANTZA • www.arantza.net

LA VILLA
Ostatua - Jatetxea - Txantzi

Karrika Nagusia, 14
31790 IGANTZI

ERRESERBAK
ABENDUAREN 22ra arte
T. 948 637 290

ABENDUAREN 25EAN
GABONEIAKO MENU BEREZIA

HASTEKO 2 AUKERAN
Iberiar urdazpikoa
Garba eta perretxiko bolobanak
Langostinoak plantan
Barazki entsalada epela

BIGARREN PLATER BAT
Bildots erreka edo Erreboilloa

POSTREA AUKERATU
Gazta tarta
Whiski tarta
Txokolatzeko CoulantA
Edaria eta kafea prezioz kanpo.

25 € BEZA BARNE

SUNBILLA

GIZARTEA → AZAROAREN 21EAN

Kantu Zaharren Egunean Jalisko omendudute Urdazubin

Angel Mariezkurrena antolatzailea ere saritu zuten

Maidier PETRIRENA

Angel Mariezkurrenak hamabigarren urtez antolatu du kantu zaharren Eguna azaroaren 21ean. Dantzarineko Lugaran sunbildarrek egun eder horretaz goxatzeko aukera izan zuten. Aurtengoan Aitor Ibarra *Jaliskori*, herriko musikari finari, omenaldi hunkigarria egin zioten. Leitzako dantzaria den Onintzak aurrekoa dantzatu zion. Ondoren Zubietako joaldunek kuadro eder bat oparitu zioten,

joare bat larru artean. Joare horretan Aitor Mendiluzek eginiko bertsoa eta bere arre-bak idatzitakoa irakurri daiteke. Ondoren bere Mahai inguruko taldekideek mexikar zapela jarrita bi kanta kantatu zizkioten eta opari bezala fofutxa eta afari bat.

Honi lotuta aipatuko dugu, aurtengoan ere Angelek lehen urtez *Bilbao kantuan* eta *Donostia kantuan* antolatu dituela eta hirugarren urtez jarraian berriz *Iruñea Kantuan*. Giro paregabea izan da guztietan eta a ze nolako arrakasta. Zorionak Angeli ere bere lan guztia erengatik. Honi ere kantu zahar egunean fofutxa bat oparitu zioten.



ARGAZKIA: LEIRE AMOROS

Doneztebeko estra Eva Arretxearentzat

Doneztebarrak merkatari eta Zerbitzu elkarteak bi zozketa eder egin zituen Eguberrietako *estraz* aurreratuz. Bereziki Eva Arretxea sunbildarra zoriondu nahi dugu berari tokatu baitzaio sari ederrena, 1000 euroko saria. Alba ilobarekin ageri da argazkian.



ARGAZKIA: BEATRIZ AGIRRE

Mahai inguruko taldeak mexikana pare bat abestu zizkion Jaliskori.

Denboraldi bukaera Ariztigainen

Denboraldi bukaerako besta egingen dute Ariztigain kanpinean abenduaren 12an. Larunbat arratsaldean haurrendako jokuak, mus txapelketa, txokolata-

da, bingoa eta denboraldi bukaerako afaria izanen da. Ondotik, dantzaldia Guateque taldearekin.

Azaroak 25

Azaroaren 25ean ospatu zen Emakumeen-

ganako indarkeria ezabatze nazioarteko egunaren harira, azaroaren 23an eskolako haurrek tailerra egin zuten, esku morea marratzuz.

Horrez gain bai Udalak baita eskolak ere kartelak jarri zituzten.



ARGAZKIAK: JOSEBA GARTZIA, BIDAL IBARRA ETA YOLANDA URROZ

Kirolaren Eguna izan zen azaroaren 29a herriarrentzat

Alde batetik Donostiako Maratoian Joseba Gartzia, Bixente Ibarra, Xanti Manterola eta Jon Maritxalarrek parte hartu zuten. Bertzetik Ulibeltzak Mendi taldeak bere irteera egin zuen Balerdira eta disfrutatu ere lekuaz eta denboraz, eta azkenik Eneko Herrerak esperientzia polita bizi izan zuen bere lehen Mendi duatloian. Laisterka mottel baina bizikletan fuerte, 16 postu errekuertatuz! Azkenin 30. izan zen sailkapen orokorrean eta laugarrena 25 urte azpiko kategorian! Orain merezitako deskantsua! Zorionak denei.

NARBARTE

BESTA → AZAROAREN 28AN ETA 30EAN

Giro ederrean joan ziren San Andres eguneko ospakizunak

Larunbatarekin herri bazkaria izan zuten eta egun handian meza, hamaiketakoa eta berendua ttikientzat

Martin BERTIZ

Umore eta giro ederrean pasa dira aurten-go San Andres bestak. Azaroaren 28an herriko ostatuan 50 bat lagun bildu ziren bazkaltzeko, jarraian Etxalarko trikitilariak medio, besta gaueko ordu txikiak arte luzatu zen. Azaroaren 30ean, San Andres egunean, 11etan meza entzuteko aukera izan zen eta ondoren ostatuan hamaiketakoa eskaini zuten. Arratsaldean, berriaz, gaztetxoendako txokolatada antolatu zuten.

Kontzejurako zerrenda

Maiatzeko udal haur-teskundetan kontzejur-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Maridomingi abenduaren 19an etorriko da

Abenduaren 19an izango dugu Mari Domingiren bixita NARBARTEN. Arratsaldeko 4ak aldera izanen dute zita plazan, handik bere bidera joanen dira haur guraso eta akordeolariak. Berari kantatu eta Olentzerori emateko gutunak eman ondoren, herriko haurrek dantzatuko dute plazan, eta gero talo goxoak denendako, Zubietako talogileek egindakoak.

rako hautagairik gabe gelditu ondoren, abenduaren 20an izanen direnetarako zerrenda bat osatu da. Bertan ondoko herritarrek parte hartuko dute, herriko afe-retan lan egiteko: Joxe Manuel Juanotena, Jon Jaukikoa, Egoitz Gamio, Julen Iriarte eta Miren Juanotena.

Janari bilketa

Azaroaren 27, 28 eta 29an Ester janari dendan behartsuendako janari bilketa antolatu zen. Borondatez emandako elikagai guztiak Doneztebeko kiroldegira eramane eta bertan, behar bezala sailkatu zituzten behartsueneei emateko.

Lehen sorospenak

Azaroaren 10ean eskolan bildu ziren gurasoak, lehen sorospenen inguruko hitzaldi interesgarri batean. Doneztebeko Haurren erizainak eman zuen solasaldia, 7 guraso elkar-tu ziren eta gustora atetara, hagitik praktikoa izan baitzen.

LANA

982 langabetu zeuden azaro hondarrean eskualdean

TTIPI-TTAPA

Urrian bezala, langabeziak zertxobait goiti egin du eskualdean azaroan. 982 langabetu zeuden izen emanak Doneztebeko Enplegu Bulegoan hilabete hondarrean, urrian baino 17 gehiago (%1,76 gehiago). Nafarroa osoan %0,12 jautsi da langabezia. Azaroan 575 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, baina horietatik 33 bakarrik izan ziren mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 426 lagun daude langabezia, urrian baino 15 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean, aldiz, urrian baino 2 langabetu guttiago daude, 472. 25 urtez behe-itiko gizasemeen artean, urrian baino 6 langabetu gehiago daude, 46 denera, eta adin tarte horretako emakumeen artean, aldiz, 2 langabetu guttiago daude, 38 denera.

Zerbitzuen arloa da langabetu gehien duena, azaroan 20 gehiago ziren (685). Industrian urrian baino 4 langabetu guttiago daude, 123 denera. Eraikuntzan berdin mantentzen da, 91 langabetu. Nekazaritzan urrian baino langabetu bat gehiago dago, 29 denera, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean ere berdin mantentzen da, 54 langabetearekin.



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNIOI ANAIK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

Haurrentzako arropa
0-12 urte

YPAPU

Jaunartzeak

 PETRITAS

 PYRENEX

Beraketa 15, IRUN
943 02 97 54
ypapuirun@gmail.com

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 12 ETA 13AN

Santa Luziako feriak tradizioa eta Saharekiko elkartasuna bilduko ditu

Ohiko ospakizunaz gain, Saharako uholdeetan kaltetutakoei laguntzeko diru-bilketa egingen dute

Marga ERDOZAIN

Santa Luzia egune-ko feriak tradizioa eta elkartasunerako ospakizuna izan nahi du aurt-ten, Saharako uholdeetan kaltetutakoei laguntzeko diru-bilketa ere egin nahi baita, ohiko bestaz gain. Santa Luzia egunean, Ixabel Juanikorena omenduko du herriak eta Zilarrezko Titarea emanen dio. Ekitaldi horrekin batera, Santa Luzia plazan, Mallerrekako eskulangile- en erakusketa izanen da. Horretaz gain, Saharaztan elkartearen laguntzaz, pintxo dastaketa antolatuko da. Bildutako dirua urrian Saharako kanpalekuan izan ziren uholdeek egindako kalteak arintzeko erabiliko da; etxeak, eskolak, ospitaleak... suntsitu baitira. Elkar- teak burutu duen kanpainarekin bat egin nahi du herriak ekimen xume honekin.

SAHARAZTAN ELKARTEA LAGUNTZEKO ASTEBURUA

Elkartasun ekimen honek abenduaren 12an, larunbatean, egindakoarekin bat egingen du. Egun horretan, arra-

tsaldeko 7etan Sahara-ri buruzko filma bat pantaillaratu baita erakus- keta aretoan. Emanaldi-aren ondoren gaur egun

kanpamenduetan bizi den egoeraren berri emanen da hainbat tes- tigantzajaso. Ondoren berendua izanen da.

Ekimen honekin bat eginda, Erreka eta Mendaur Guraso Elkarte-ko eta DBHko 4. maila-ko ikasleek abenduaren

13ko zinema proiektioe-kin bildutako dirua Sa- haraztan elkarteari ema- nen diotela jakinarazi dute.



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Errekako talde guztien aurkezpena egin zuten azaroaren 28an kiroldegian. Denera 165 lagun ari dira eskubaloian.

ABENDUAREN 19AN

Carlos Soria mendizale handia izanen da Errekaren Mendi Egunean

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, ekitaldi ugari prestatu ditu Errekak abendu- rako. Hasteko, hilaren 18an, Egu- berrietako saskiaren zozketa egi- nen dute elkartearen egoitzan ortziral arratseko 8etan.

Biharamunean, abenduaren 19an, Mendiaren Eguna presta- tu dute. Goizeko 7:30ean men- di irteera egingen dute autobus geltokitik abiatuta. 12:30ean


mendizaleen poteoa eta 14:00- etan bazkaria. Hilaren 16a bitar- te eman daiteke izena Titin. 19:00etan Carlos Soria mendi- zale ezagunaren eskutik proiektioa izanen da zineman (Sar- rak 3 eurotan salgai daude Ti- tin, Berako Errekalden, Elizondo- ko Intzan eta Leitzako Maimu- rren). Hainbat mendi igoak ditu Carlos Soriak, baina aipatzekoa da zazpi kontinentetako zazpi

gailurrik garaienetara igo dela eta 60 urte baino gehiagorekin 8.000 metro baino gehiagoko bederatzimendi igo dituen Mun- duko mendizale bakarra dela.

Abenduaren 24an Saioara mendi irteera egingen dute eta abenduaren 31n, goizeko Men- daurrerako irteeraz gain (07:30ean dute hitzordua auto- bus geltokian), X. San Silvestre lasterkea egingen da 18:00etan.



T. 948 450 028 · DONEZTEBE
www.ameztia.com



Turriak | Errege errokoak enkarguz



Ortziral arratsaldetan irekia
Enkarguak hartzen dira

GIZARTEA → BADA NON ARITU HILABETE OSOAN

Abenduko agenda ekitaldiz gainezka dator

Marga ERDOZAIN

Herriko talde anitzen lanari esker, era guztietako ekimenak antolatu dira abenduan. Gehiago ere izaten ahal dira, baina antolatzaileek informazioa kartel eta sare sozialen bidez zabalduko dute.

Ipuingintzari dago-kionez aipatu behar da ipuin txokoa abenduaren 1 eta 15ean burutuko dela liburutegian 10:30ean. Abenduaren 12an, Bakarne Atxukarrok eta Izaskun Zubialdek Euskal Mitologiaren ipuin bildumaren bigarren liburuauren aurkezpena egingen dute erakusketa aretoan 17:00etan. Ipuin ordua, berriz abenduaren 16an.

Hilabete honetako zinema emanaldiak hila-

ren 8, 13 eta 20an izanen dira (16:30ean eta 18:30ean).

Abenduaren 17an Erreka guraso elkarteak antolatutako hitzaldia emanen du Carmen Nieto psikologoak: *Dolua gaixotasun, heriotza eta beste galera batzuen aurrean*.

Abenduaren 18an Eguberrietako kontzertua eskainiko dute elizan Donostiako Txistulari Bandak, Mendi Abesbatzak, Erreka taldeko dantzariak eta Agorreta Musika eskolako ikasleak. 22an: Bertako antzerki tailerrak eskainitako emanaldi bikoitza: *El príncipe feliz* eta *Cena de Navidad*. 23an: *Herri Txiki Infernu handi* saioaren grabaketa. 26an Donezte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Genero indarkeriaren kontra Mendaur Institutuan ere

Malerreka Genero Indarkeriaren aurka eta Ez Malerrekan, ez inon lematzat hartuta Malerrekako herritar guztiek irmoki gaitzespen ekimen bateratua egin zuten azaroaren 25ean. Malerrekako Mankomunitateak antolatutako ekimen bateratu honek argazki eta ekitaldi anitz utzi ditu: udaletxeetako fatxadetan kartelak, pegatinak eta pankartak eskola eta dendetan, tailerrak, zinema foruma... Haur eskolatik hasita, eta adin guztietako jendarteak, indarkeri hau desagerrarazten laguntzeko indarrak batu zituzten aste osoan burutu ziren ekitaldietan. Bitxikeria gisa aipatu behar da argazkian ageri diren Mendaur Institutuko ikasle eta irakasleek hartutako konpromisoa: eraildako emakume bakoitzagatik eskolako patioan bilkura bana egingen dute. Bakar bat ere ez izatea espero dute.

barrak Merkatarri elkar-teak antolatutako ton-bola, 17:30ean. Abenduaren 28, 29 eta 30ean eta urtarrilaren 4an Erreka Guraso Elkarteak an-

tolatutako ingelesalan-tzeko tailerrak liburute-gian. Urtarrilaren 1ean *Urte Berri Berri* ekime-na. Urtarrilaren 5ean Errege kabalga-ta.

Eguberrietan ere Doneztebe futbol taldeak V. Futbol 7 txapelketa antolatuko du (abendua- ren 26 eta 27an eta urtarrilaren 2 eta 3an).

**Opari praktikoak!
Zorionak!**

**1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea**

edredoi fundak • albormozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

GIZARTEA → ABENDUAREN 13AN

A group of approximately 25 children and a few adults are posing for a group photo on a paved street. They are arranged in several rows, with some children kneeling in the front. In the background, two fire trucks are parked. The truck on the left is white with red accents and has 'BOMBAS' written vertically on its side, along with the number '112' and 'B-0038'. The truck on the right is red and white, with 'BOMBAS' and 'BOMBEROS' written on its side. The children are dressed in casual clothing, and the scene is set in front of buildings and trees.

ULTZITAKO ARGAZKIA

GIZARTEA → AZAROAREN 25A

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra agertu da herria ere

Kartela jarri zuen udalak eta tailerra eta proiektzioa egin zituzten Txitxillon

Fermin ETXEKOLONEA

Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako egunaren harira, kartelak paratzen parte hartu zuen Udalak. Udaletxeko leihotik zintzilikatu, genero indarkeriaren kontrako pankarta jarri zuen, esku morea-

rekin. Txitxillo haur elkartean ere egin zuten gai hau lantzeko tailerra eta rol sexistei buruzko proiektzioa eskaini zuten.

Hauteskunde mahaia

Abenduaren 20an egingen dira Espainiako Parlamenturako hauteskundeak eta herriko hautesmahaia ere zehaztu dute. Mahaiburu Arantxa Diez izanen da eta ordezkoa, Eneko Santesteban. Bokalak Arantxa Heras eta An-



ARGAZKIA: ERNESTO DOMINGUEZ

Leihotik zintzilikatu zuten genero indarkeriaren kontrako kartela.

drea Mendiburu izanen dira eta hauen ordezkoiak Oihana Elizalde eta Juainas Paul.

Heriotza

Goiko Etxeko Ixiar Ibarra Indakoetxea hil zen azaroaren 28an, 78 urte zituela eta biharumanean egin zen elizkizuna. Arrasatera ezkondua zen, baina harreman handia zuen herriarekin. Doluminak familiari eta zazpi seme-alabei. Goian Bego.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joaldunak 'urdaizabalka' Dantxarinean

Giroa paratu zuten eta garai batean bezala urdaizabalka ibili ziren joaldunak Dantxarinean egindako Kantu Zaharren Egunean, ikuskizuna jarritz. Joikuaren erakustaldia egin zuten, kantuzaleen harri-durarako eta gozamenerako.




Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com



A, B eta C motako
GASOLIOA
ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

ARTIKUTZA
Kontserbaziora ko Ere mu Bere zitzat izendatu dute

TTIPI-TTAPA
Goizuetako dermioan, Gipuzkoa, Zubietza, Beintza-Labaien, Arantza eta Lesakarekin muga egiten dute Artikutzako 3.638,65 Hektareak. Kontserbaziorako Ere mu Bere zitzat (ZEC) izendatu berri du Nafarroako Gobernuak. Komunitaterako interesa duten zortzi habitatat ezberdin omen dituzte Artikutzak.

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

ZUBIONDO

Jatetxea sagardotegia

- Eguneko menua
- Asteburuetako menu berezia
- Karta aukera zabala
- Sagardotegi menua
- Haur parkea titikientzat





Alasta Karrika BERA • T. 948 625 472
www.zubiondojatetxea.com

EZKURRA



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Fermin Apeztegia Elgorriagako Hilarionen omendu dute.

GIZARTEA → AZAROAREN 22AN

Fermin Apeztegiak ere jaso du bere omenaldia

Arkupeak elkarteak Gorraizen eskainitakora ezin izan zuen joan eta Elgorriagan elkartu da familiarekin

Fernando ETXEBERRIA


Fermin Apeztegiak 85 urte bete ditu aurten eta Arkupeak elkarteak Gorraizen omentzeko asmoa zuen, baina ezin izan zuenez bertaratu Elgorriagako Hilarion-jatetxean elkartu zen bere familiarekin azaroa-

ren 22ko igandean. Familiakoek Ferminek duen umore ona eta me-

moria liluragarria galdu ez dezan opa zioten. Orain, bizitzako garai lu-

ze batez bere etxea izandako Tornainea baserria utzi eta Izaskun

arrebarekin batera Donosteban biziko da. Zorionak eta aurrera!



Lehenengo elurteak eta euri zaparradak

Urri eta azaroko egun beroen ondotik, negu atarian gaudela gogorarazi digu ama lurrak. Argazkietan ikus daitekeen bezala, egunsenti zoragarriak izan dira, zero gorrixkak etxeak eta inguruak koloreztatu ditu tar-teka.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerreka genero indarkeriaren aurka

Azaroaren 25ean indarkeria sexistaren aurkako eguna zela eta Ezkurrako Udalak balkoian apaingarriak jarri zituen Malerreka indarkeria sexistaren aurkako logoarekin. Arratsaldean, berriz, haurrentzat hainbat ekitaldi antolatu ziren: "pin"ak egiteko aukera, adibidez. Ume guztien artean egindako lauki bat ere zintzilikatu zuten eta bukatzeko, merienda goxo batekin amaitu zuten eguna.





Jaio berrientzako behar duzun guztia

*josta
mendi* *teikia*

Bezero txartelarekin sekulako abantailak
Eskaintza bereziak

GIPUZKOAKO 500m² erakusketarik
zabalena duen puerikultura denda
Easo, 51 • Donostia • T. 943 470 244

Artaleku, 3 • IRUN • T. 943 638 223
www.maxibebé.org


maxibebé



Jauriena
Instalazio
elektrikoak



Instalazio elektrikoak · Mantenimendu industrial
Etxetresnak · Antenak · Sukaldeko altzariak

- DIGITAL PLUS **DIGITAL+**
- ENERGIA ETA ARGIZTAPENAREN EFIZIENTZIA AZTERKETAK

608 777 926 · 630 136 863 · 948 631 217
jaurenabera@gmail.com

buatxabal
Basque clothing co.

**Baietz asmatu?!
oninart jantzi denda**

plaza zaharra 5
LESAKA



948 625 442
San Esteban 17 · BERA

**DROGERIA · MENAJE
DENDA ESPECIALIZATUA**



POSTREAK GOXATZEKO



Gabonetarako opari erabilgarri, sofistikatu eta lagungarria izaten ahal da kafetera. Egun haue-
tan familia giroan etxean egin-
dako bazkari, merienda eta afari-
ak ederki amaitzeko aukera
emanen du. Hotza dela eta etx-
etik ateratzeko alferetzen dire-
nentzat opari ezin hobea, kafe
goxoa etxean edateko aukera.

GOXO BEZAIN DOTORE

Neguko hotzetik babesteko fular, zapi edota
bufanda oparitzeko ideia arrakastatsua izan-
nen da. Lepoaldea bero-bero mantentzeaz
gain, janzkera apaintzeko balioko duen
osagarria da. Opari hau edonori egiten ahal
zaio, edozein adineko neska-mutil edo
emakume eta gizonei.



USAINEN GARRANTZIA

Lurrina ohiko oparia izaten den arren, ez
da modaz pasatzen eta opari honekin huts
egiterik ez dago, nahiz eta urteak pasa ez
baita zaharkitzen. Halere, egia da gauza
nahiko pertsonala izaten dela, beraz, auke-
ratzerako orduan garrantzitsua izanen da
bertze pertsona ezagutzea.



Mendaur Motor

Leitzako bidea · DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura



Zorionak eta Eguberri On!!

EGUBERRIAK

Gabonak iritsi eta burua oparirik egokienak erosteko ideien bila hasten da. Ideiak, hala ere, auniztan bukatu egiten dira. Kasu horietan dendarien aholku eta esperientziak aunitz laguntzen du. Opari bat egin baino lehen, garrantzitsua da oparia hartu behar duen pertsona ezagutzea eta zein gustu dituen jakitea. Pertso - naren behar edota nahiak jakin eta gure inguruko dendetan eskaintzen diren produktuak ezagututa, ziur opari ahaztezinak izanen direla aurtengoak!



BETIRAKO APAINGARRIAK

Data bat ahaztezin eta berezi bihurtzeko opari proposak izaten dira bitxiak, bizitza osorako opariak izaten baitira. Pul-tserak, lepokoak, erlojuak, eraztunak, ... eskaintza zabala izaten da bitxiaren munduan eta bakoitzarentzat aproposa dena oparitzeko aukera egoten da.



DISKO GOGOR ETA USB MEMORIAK

Beharbada ez da glamourrez beteriko oparia baina USB eta disko gogorrak hagitzen erabilgarriak dira. Tresna hauek datu, argazki eta dokumentuak gordetzeko aukera emateaz gain, telebistan USB sarrera izanez gero, pelikula ikusteko modua ere eskaintzen dute. Gainera, formatu, kolore eta forma ugariak aurki daitezke, bakoitzari gehien egokitzen zaiona oparitzeko.



Merkaopari
www.merkaopari.es

Urtero bezala, berriz ere iritsi dira Eguberriak

Beti bezala konfiantzaz eta preziorik onenean. Zorionak

Zorionak eta eguberri on!

MM
MERCHE MODA NOVOS
Serapio Múgica, 11
20302 IRUN
943 612 626

www.capelettimercehirun.com

EGUBERRIETAKO OPARIAK:

- Moda
- Osagarriak
- Lurrinak
- Kosmetika

Zehur asmatuko duzula!!

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

OPARI TXARTELA
Zure esku

Ameztia DONEZTEBE • T. 948 450 163 • centroamaya@zarbo.net

Kalash JOYEROS

Banatzaile ofiziala:

CASIO **CITIZEN**
VICEROY ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

Eguberria ailegatu da

Ongi etorri Venta Peio merkatal zentruetara

Eguberriko
Zapore &
Gutiziez
Gozatu

BESTA GOZOAK BIZI ITZAZUE



Opari
Ideia

paregabeak

Adin eta gustu guztientzako
opari idela zabala

Gabon
Mahaia



Apaintzeko
beharrezko guztia

GABONETAN
ERE DOTORE

Marionnaud
Parfumeries



IRITSI DIRA



Eguberri on

ABENDUAREN 1-ETIK URTARRILAREN 4 - RA



Neurrira egindako oparia!

Mota, aukera, kolore, neurri, prezio, erabilera... desberdinetako opariak eros daitezke. Eskaintza geroz eta zabalagoa da eta opariak egiteko moduan ere berrikuntzak iritsi dira. Zehazki zer oparitu ez dakienarentzat, dudak dauzkanarentzat, guztiz argi ez duenarentzat... gure herrietan hamarnaka komertziok opari txartela erosteko aukera eskaintzen dute. Honi esker, opari txartela jasotzen duen pertsonak gustuko duen oparia hautatzeko aukera izanen du.

Opari txartela erosteko aukera eskaintzen duten komertzioetako batzuk aldizkari honetan topatuko dituzu, opari txartelaren logoa dutenak dira, hain zuzen.

Aukera anitza da: aisia, kirola, gastronomia, osasuna, estetika, apaingarriak, moda...

Beraz, otordu goxo eta ahaztezin bat, erlaxatzeko masaje bat, arropa erosteko bono bat... eta bertze milaka aukera oparitu litezke opari txartela erabiliz.



Karma ESTETIKA

- Aurpegirako tratameduak
- Mesoterapia
- Gorputzerako tratamenduak
- Erlaxatzeko masajeak
- Drainatze linfatikoa
- Faguterapia - LPG
- Presoterapia
- Argizariarekin depilatzea
- Manikura - Pedikura
- Makillajea
- Befileetako permanentea

OPARI TXARTELA Zure esku

Altzate 33 BERA · 948 63 09 04

GESTÉTICA MIMA

IGARZABAL

SKEYNDOR

SKEYNDOR skin tester bar

Albistur, 17 · LESAKA · T. 948 637 280

Maite Igarzabal

OPARI TXARTELA Zure esku

GURE AMETSA DA ZURE ILEA ZAINTzea
ETA GERO ETA HOBEBIAGO EGOTEA

NOLA?
PROBATU NAHI AL DUZU?
BA..... ETORRI, ENTZUN.....
SENTITU..... ETA IKUSI.....

Koxkontako bidea 3 · LESAKA · T. 948 637 550

M.L. ESTETIKA

ILEAPAINDEGI MISTOA

OPARI TXARTELA Zure esku

DEPILAZIO ELEKTRIKOA
ILEAPAINDEGIA - SOLARIUMA
DEPILAZIOA - MASAJEA
MANIKURA - PEDIKURA

ILEAPAINDEGIA ETA BIZARTEGIA GIZONENTZAT

Sarrera independentea eta tratu profesionala

Iturlandeta, 4 · 31780 BERA · T. 948 630 483

EGUBERRI ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

LURRIN KUTXA GUZTIETAN

%15_{EKO}
DESKONTUA

FIDELTASUN TXARTELAREKIN

%20_{EKO}
DESKONTUA



LURRIN-DENDAK

IBARDIN · DANTXARINEA · VALCARLOS

Mahai gaineko kutixiak

Euskal Herrian mahaiaren bueltan elkartzeko ohitura ikaragarria dago. Familia giroan dela, lagunarteko bazkari eta afarietan, elkarte eta txokoetan... eta gabonak ere otorduak elkarrekin egiteko aitzakia ezinhobe dira. Jakiz betetzen dira etxetako mahaiak eta baita sabelak ere.

Ospakizun egun hauetan jaki goxoak eta ezohiko menuak, egunerokotasunean jaten ez direnak, prestatzeko ohitura dago eta, gehiegi janez gero, ondotik arazoak izaten ahal ditugu. Arraina eta marisko freskoa, adibidez, jaki arinak dira eta hauek janez gero, gure sabelak aunitz eskertuko du, batez ere gaueko otorduetan.

Otordua borobildu eta goxatzeko ez ahaztu postreerako lekutxo bat uzteaz! Inguruan tradizio handiko gozogileak daude eta denetarik aurki liteke; errege errosoak, bonboiak, turroiak... On dagizuela!





ARKUPE

Gozotegia • Txokolategia



Elizondo - Tel. 948 452 393
Irurita
Tel. 948 452 021 - 948 580 059

info@arkupagozotegia.com
www.arkupagozotegia.com

TXALUPA, S.I.

ARRANDEGIA

Arrain eta marisko freskoa aste osoan Enkarguak hartzen ditugu

Zorionak eta Urteberri on!



Kanttonberri, 3 behea • BERA
T. 670 321 202 • 948 631 575



Garbi ogi & coffee

KAFETEGIA - OKINDEGIA

Zorionak eta eguberri on!!

TURROIAK • ERREGE ERROSKOAK

Urteberri egunean goizez irekia
10:00 - 14:00

Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 673

ORDUTEGIA: 07:30-13:30 / 16:00-20:30 • Asteazken arratsaldetan itxita

Malkorra



Santiago, 15 • Tel. 948 580 061 • ELIZONDO
www.malkorra.com



**EGUBERRI
ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU!**

BIOK

BIOK SUPERMERKATUA

Benta BIOD, Ibardingo Gaina - 31780 Bera, Nafarroa
948 631 451 - www.bentabiok.com

Helburuak eta asmoak ez daitezela bidean galdu

Urte berrirako asmo, intentzio eta lortzea ezinezkoak diren helburuz betetzen da burua askotan. Ezarritako gehienak bete gabe edo erdibidean geratzen dira, hala ere. Zergatik? Zer egin dezakegu geure asmoak aurrera eramateko? Helburuak ahalik eta hobekien zehaztea hagitz garrantzitsua da. Behin helburua zehaztuta, oraingo egoera zein den jakin behar da; non nago eta noraino iritsi nahi dut, zein da nire egoera, zergatik ez nago eroso... Horrela, helburua lortzeko egin beharreko bidearen iraupena eta luzera zein den jakinen da.

Helburu eta asmoak paperean idazteak aunitz laguntzen du, baina hauek nola idatzi behar diren jakitea garrantzitsua da. Hasiera batean filtrorik gabe idatzi behar dira asmoak, orden zehatzik eta kezkarik gabe; nolakoa izan nahi dut, zer lortu nahi dut, nola bizi nahi dudana, ... Ondotik, informazio hau guztia egoki idatzi eta antolatzea tokatzen da. Helburu orokorrak idazteak ez du laguntzen, helburu zehatzak izan behar dira, detailez josiak. Bidean koxkaren bat agertzen den egunean, paperean idatzitako arrazoi, helburu eta jarraitu beharreko pausuak irakurtzeak motibatzen eta aurrera jarraitzen lagunduko du.

Amaitzeko, helburua pausoz pauso betetzea garrantzitsua da, horretarako betegarriak diren asmo txikiak agendan idatzi eta egunero pixkanaka-pixkanaka helburua betetzea errazagoa izanen da! Gauero betetako pausuak errebisatu eta hurrengo eguneko helburuak ipini. Ziur aurtengo asmoak ez direla asmo hutsean geratuko, ZORTE ON!



**BIZIKLETEN
SALMENTA
ETA
KONPONKETA.**

Eta orain,
**GIMNASTIKA
ETA FITNESS
MAKINAK,**
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak

Kattonberri, 1 BERA **948 631 218**
kateabera@telefonica.net



TABERNA ZAHARRA



Gizon eta emakumeendako
arropa-denda

Gortinak eta
etxerako arropak



Merkatarien karrika, 11 · DONEZTEBE
T. 948 450 007

baztanoil
ELIZONDO | www.baztanoil.com
GASOLIOA ETXERA

**24
ORDUTAN
ETXEAN**

**T. 948 452 309
M. 677 310 009**



Repsol Gasolioen
banatzaile
komertziala



Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 · F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com

Abenduaren 20tik Urtarrilaren 15era
ITXITA EGONEN DA



EGUBERRI ETA URTE BERRI ON
Lagun eta bezero izan zaituztegunoi!



EGUBERRIETAKO ZURE OPARIRIK HOBERENA!!

(40 eurotik hasita...)



Sanvirila ametsak
www.sanvirilahoteles.com

RELAX **ESCAPADA** **BIENESTAR Y**
NIGHT **TU MOMENTO BIENESTAR** **GASTRONOMÍA**
& DAY **BIENESTAR Y RELAX** **A LA**
CARTA

BONUA "IBILBIDE TERMALA"

- Ibilbide termala (70min.) 2 pertsonentzako

BONUA "IBILBIDE TERMALA ETA BAZKARIA EDO AFARIA"

- Ibilbide termala (70min.) 2 pertsonentzako
- Buffet bazkaria edo afaria 2 pertsonentzako

"TU MOMENTO BIENESTAR" AMETSA (persona 1)

- Ibilbide termala (70 min.)
- Masaje 1 kartan aukeratzeko (25 min.)

"NIGHT & DAY" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)

"RELAX" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
- Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko

"BIENESTAR Y RELAX" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
- Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko
- Masaje 1 kartan aukeratzeko (25 min.) / pertsona bakoitzeko

"ESCAPADA BIENESTAR" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
- Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko
- Bazkari edo afari bat gure jatetxean

"BIENESTAR Y GASTRONOMÍA" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
- Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko
- Dastatzeko bazkari edo afari bat AROTXA JATETXEAN

"A LA CARTA" AMETSA

- Zure irudimenak nahi duena



BEOLA-ETXEA

/ supermerkatua / bar / jatetxea /
/ lurrindenda / moda /

Ibardin gaina, 30 BERA T. 948 630 709
www.beolaetxea.com



gizon eta emakumearentzako arropa



BL

arropa-denda

%30 eko deskontua
DENBORALDI BERRIKO
ARROPA ETA OINETAKOETAN



OSAGARRI, BITXI,
BOLTSO eta
OINETAKOETAN
AUKERA ZABALA

LURRINDEGIAN
sekulako eskaintzak!

Bench.
smash!



!Solid
Refresh

Paramita...

Xti.

SURKANA

ICHI

Urte berriaren bila elkarrekin lasterka

San Silbestre lasterketa geroz
eta zabalduago dago eskualdean

Herriko karrikak girotzeko, 2015a elkarrekin agurtzeko eta urteko azken afaria irabazteko, abenduaren 31n San Silbestre lasterketa herrikoia antolatu dira Doneztebe, Elizondo eta Leitzan. Urte zaharrean egindakoak atzean utzi, urte berrira eraman nahi direnak motxilan hartu eta lasterka abiatuko dira 2016 urtearen bila gure herrietako korrikalari aunitz.

Donezteben hamargarrenez

Hamargarren aldiz antolatu du Erreka Elkartek San Silbestre lasterketa. Urtero bezala, bi taldetan banatuko dira korrikalariak. 18:00etan 2002. urtean edo ondotik sortutakoak aterako dira eta zirkuituari buelta bakarra emanen diote. Helduek, aldiz, 3.5 kilometroko ibilbidea egingen dute. Irteera eta helmuga Herriko Etxearen atarian izanen da eta ibilbide osoa herriko karriketan egingen dute. Irabazleek sariak jasoko dituzte, parte hartzaile guztiei opari bat emanen zaie eta zozketak ere egingen dira. Antolatzaileek proba hagitz herrikoia dela diote eta garrantzitsuena korrikalari eta ikusleen artean sortzen den giro bikaina izaten dela.

Elizondon VI. edizioa

Seigarrenez urtea lasterka agurtzeko aukera izanen da Elizondon, Baztan Kirol Elkartek Udalaren eta merkatarien laguntzarekin antolatutako San Silbestre lasterketan. Ttikienak hiru taldetan banatuko dira: lehenengoa 3, 4 eta 5 urtekoena. Bigarrena, 6, 7 eta 8 dituztenena. Eta azkena, 9, 10, 11 eta 12 urtekoen taldea. Hiru ibilbide egingen dituzte, ibilbide motzenetik hasita, luzeagoetara. 17:00etan hasiko da ttikien lasterketa. 18:00etan helduen txanda izanen da eta hauek euro bat ordaindu beharko dute; sariak erosteko erabiliko da diru hori. 3,9 kilometroko ibilbidea egingen dute herriko karriketan barrena. Lasterketan izena eman nahi duenak, 16:30ean Elizondoko plazan izanen du aukera.

Leitzan II. San Silbestre lasterketa

Iaz lehen aldiz antolatu eta San Silbestre lasterketaren bigarren edizioa dute aurtengoa. Izen-ematea abenduaren 30a baino lehen egin beharko da Astizen, Maimurren edo kiroldegian. Korrikalariak 3 taldetan sailkatuko dira: 9 urte bitarteko haurrek 600 metroko ibilbidea egingen dute 16:30ean abiatuta. 10-15 urtekoek 2.400 metrokoa 16:45ean. Eta azkenik, 16 urtetik gorakoek 4.800 metroko zirkuitua 17:00etan hasita. Haurrek euro bat ordaindu beharko dute izen-ematea eta helduek 2 euro.



Zorionak
eta eguberri on!!



T. 948 456 152 · Zazpigurutze, 8 · DONEZTEBE

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g · 31780 Bera · Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalainjatetxea.com

KARTA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUETAKO MENUA
MENU BEREZIAK



KASINO
OSTATUA · RESTAURANTE



BERTAKO PRODUKTUAK
EGUNEKO MENUA
KARTA AUKERA ZABALA
KROKETA GOXO-GOXOAK



Plaza Zaharra · LESAKA · 948 63 72 87

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE

72673111-B

epemuga 04/2016

Zk. 123456

ttipi-ttapa

ZOZKETAK

651. ALEKO IRABAZLEAK:
Kamiseta bat | BUATXABAL

Daniel Iparragirre | BURLATA

3 liburu | IBAIZABAL Argitaletxea

"Hildakoen eremuan" | Amaia Apezetxea | LEITZA

"Faraoiaren gordelekua" | J. M. Gogortza | EZKURRA

"Ongi joan!" | Jose Telletxea | DONEZTEBE

2 sarrera | LESAKAKO UDAL IGERILEKUA

Anttoni Etxeberria | BERA

2 sarrera | IRRISARRI LAND

Mertxe Sanbizenta | ELBETE

Martiko lotea | MARTIKO

Virginia Oteiza | ARRAIOZ

2 sarrera | DONOSTIAKO AQUARIUMA

Alizia Trantxe | LEGASA

ttipi txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago: **TTIPI-TTAPA** Koskontako bidea 7 LESAKA

T 948 635 458 | F. 948 635 457 | info@ttipi.eus | erran.eus

Gabonetako sariak

 2 sari tiki
 2 sari handi-handiak

1

2

1

2



GIZARTEA → AZAROAREN 23AN

Karbono Aztarnaren Ziurtagiria jaso du Transbidasoak

Negutegi efektuko isurpenak ezagutzea eta kontrolatzea ahalbidetzen duten enpresa-praktikak errekonozitzen ditu zigiluak

TTIPI-TTAPA

Alkaiagan egoitza nagusia duen Transbidasoa errepideko garraio enpresak AENOR-ek ematen duen Karbo-

no Aztarnaren Ziurtagiria jaso du azaroaren 23an, Nafarroako Gobernuko Manu Ayerdi presidente ordearen eskutik. Agiri honek, ber- tze abantailen artean, enpresaren isurpenak ezagutzea eta kontrolatzea ahalbidetzen du eta honela, bere sin- egarritasuna eta konpetitibitatea hobetu.

Ziurtagiriaren bana- ketan izan ziren, Nafarroako Gobernuko pre- sidente ordearekin ba- tera, Jose Antonio Ma- riezcurrrena eta Miguel Etxezarreta, Transbida- soako presidentea eta



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Emilio Flamarique (AENOR), Jose Antonio Mariezcurrrena eta Miguel Etxezarreta (Transbidasoa) eta Manu Ayerdi, Nafarroako Gobernuko presidente orde.

zuzendari nagusia, bai- ta Emilio Flamarique ere, AENOReko zuzendaria Nafarroan.

Ziurtagiri honek, Transbidasoaren Kar- bono Aztarnaren kalku- luaren egiazkotasuna ziurtatzen du, ISO 14064-1 Arauan oina- rritua. Ayerdi presiden- te ordeak gogorarazi zuenez, «Nafarroaren garapenak jasangarria izan behar du, ekono-

mikoki bideragarria eta konpetitiboa, gure ingu- rumena zainduz, eta ho- ri ez dugu bakarrik lor- tuko, lurraldeko enpre- sa ehunarekin batera lan eginez baizik».

TRANSBIDASOA

Transbidasoa S.A. 1976an sortu zen, eta estatu barneko nahiz nazioarteko errepideko garraioan, zerbitzu lo- gistikoa eta biltegi- ra-

ztean ari da geroztik. Al- kaiagan dauka egoitza nagusia eta karga oso- an estatu mailako en- presa garrantzitsuene- takoa izateaz gain, na- zioartean ere aunitz za- baldu da. 1998an Kali- tate Kudeaketako Ziur- tagiria jaso zuen, ISO 9001 Arauaren arabe- ra, sektore honetan gi- sa honetako ingurumen ziurtagiria jaso zuen le- henbizikoa.

HEZKUNTZA → AZAROAREN 30EAN JUANSENEAN

Lanbide Heziketa hizpide izan dute

Ikastetxe eta udaletako ordezkariak

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko lanbide heziketa eskaintzari bu- ruz aritzeko azaroaren 30ean, astelehen arra- tsaldean Bera, Elizon- do eta Lekarozko lan- bide heziketa ikas- tetxeetako ordezkariak eskualdeko udaletxe- ta- ko ordezkariekin bilera egin zuten. Doneztebe- ko Juansenean burutu

zen bilkura. Harat Aran- tza, Donamaria, Oiz, Be- ra, Urdazubi, Sunbilla, Doneztebe, Lesaka, Itur- ren, Zubieta eta Baztan- go udaletako ordezka- riak joan ziren.

Elizondoko lanbide heziketa ikastetxe- ko zuzendariak, Maite Arizte- gik, orain artiko gogo- eta prozesuaren berri eman zuen. Hala, ikas- tetxeen artean adostu dituzten oinarriak jak- inarazi zituen: eskualde- rako lanbide heziketa zentru erreferente bat



UTZITAKO ARGAZKIA

Orain artiko gogoeta prozesuaren berri eman zuen Maite Ariztegik.

behar dela, euskalduna (D eredua lehenetsiz), kokapen zentralizatu- a izan duela eta oraingo eskaintzatik abiatu- rik egokitu eta berritu be- harko litzatekeela.

Ildo horretan, Maite Ariztegik azaldu zuen guzti horri buruzko a-

dostasuna- hezkuntza eskaintza eta kokape- nari buruzko adostasun- a-, eskualdean lortu behar dela erran zuela Nafarroako Gobernuak.

Gogoeta honetan es- kualdeko eragile guzti- en parte hartzea beha- rrezkoa dela aipatu zu-

en. Baita hemendik ai- tzinerat iritziak eta ekar- penak biltzen eta ados- tasunak eraikitzen ja- rraitu nahi dutela ere. Bide horretan udaletxe- en inplikazioa beharrez- koa eta garrantzitsua dela azpimarratu zuen Ariztegik.

ARKUPEAK

GIZARTEA → URTEKO BALANTZEA

3.194 bazkidek parte hartu dute urte honetako bidaietan

Ikastaro ezberdinetan, berriz, 252 lagunek ikasi dute

Fernando ETXEBERRIA

Aurreko alean aipatu bezala, azaroaren 19an egin zen Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordearen batzarra. Bileran horretan, aurten bidai ezberdinetan 3.194 bazkidek parte hartu dutela jakinarazi zuten.

2016 urterako bidai plangintzaren baitan, irteera berriak eskainiko dituzte eta horien berri zehatza emanen da abenduaren 17an delegatuek egingen duten bileraren ondotik argitaratuko den boletinean. Beraiek arduratuko dira Eguberriak baino lehen banatzeaz.

Ikastaroetan, berriz, 252 bazkidek hartu dute parte eta heldu den urtean berriz eskainiko dira, bai arrakasta handiena izan dutenak, baita berri batzuk ere. Ikastaroak otsailetik aitzinera ematen hasiko direnez, interesa duten

bazkideek urtarilaren 31 baino lehen izen ematea eskatu dute.

San Donatora mendi irteera

Azaroaren 17an Unanuen bildu ziren 23 bazkide, gaueko hormarengatik arriskutsu xamar zeuden San Donatoko aldapa gogorrak igotzen hasteko. Beherakoan eguraldia goxatu zen, baina kontuz ibili behar izan zuten mendizaleek maldarekin. Gero, Irurtzongo Plazaola hotelean bazkaldu eta urteko azken irteera abenduaren 15ean egitea erabaki zuten, Hendaia eta Sokoa arteko joan-etorria. 2016rako aurreikusiak dituzten irteerei dagokienez, Txindoki, Aizkorri, Beloki, Gorbea eta Gavarnieko ur-jauzi famatura joan nahi dute.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko mendizaleak San Donaton.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Gernikako Feriara bisita egin zuten Arkupeak elkarteko 220 bazkidek

220 bazkide joan ziren azaroaren 19an Gernikako Feriara. Eguraldi bikaina lagun, ehundaka postutan ibili ziren, produktuen kalitatea aztertu, aukeratu eta goxoenak erosten. Denerako astia izan zuten, batzuk toki adierazgarrienak bisitatzeko ere aprobetxatu zuten. Gernikako Arbola dagoen Junta Generaletako etxera joan ziren eta 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketak utzitako sarraskian oinarritutako Picassoren *Guernica* koadroaren kopia ere ikusi zuten, horma batean margotua. Eguerdian, denak jatetxera joan ziren, eta bazkalondoa Jose Angelen doinuekin dantzari aritu ziren, etxera bueltatu aurretik.



OSPAKIZUNA → AZAROAREN 28AN

Euskararen eguna giro bikainean joan zen

Euskal kantu eta jolasek alaitu zuten bazkalondoa

Juana Mari SAIZAR

Euskaraz bizi den herriak euskararen egun borobila ospatu zuen azaroaren 28an. Egur-diko 12etan Panpanoziri aldizkariaren hiru-garren alearen aurkezpena eta dokumental emanaldia antolatu ziren eta handia izan zen sortutako interesa; udal-letxeko aretoa bete izana horren adierazle. Kristina Urrutiak egin zuen aldizkariaren aurkezpena eta bide batez, datozen urteetan Leitzaldeko Euskara Teknikaria izanen denak, bere burua aurkezteko aprobetxatu zuen tarte. Bi dokumental eskaini zituzten gero, euskara gaitzat hartuta, errealitate desberdinak agerian uzten zituena. Bazkalorduan Pake-Toki elkarteak bildu ziren denak, banabar jate he-



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

Herriar asko bildu zen azaroaren 28ko ekitaldietan.

rrikoan eta bazkalondoran agerian geratu zen herriar kanturako afizioa badela. Trikiti eta panderoaren laguntza-

rekin, euskal kantuak abesten aritu ziren haur, gazte eta helduak. Arratsaldean jolaserako tarte ere izan zen. Lau tal-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kalabaza galanta Juantoneko bordan

Juantoneko bordako Joxepa ikus liteke argazkian 60 kiloko kalabazarekin. Ez dakigu sekretu bereziren bat ote duten horrelako aleak ateratzeko!

detan banatuta imintzio, kantu, marrazkiak egin ez edo hitz debekatuak erabili gabe, taldeki-deei arrastoan jarri eta hauek ezkutuan zegoen hitza asmatu behar zuten. Ateri zegoe la aprobetxatuz, iluntzean kantu jira egin zen herriar barna eta bukatzeko talo goxo goxoak jateko aukera izan zen eskolako trinketean. Egunean zehar lortutako dirua, Tuterako Argia ikastetxeari bidaltzeko zaio.

FLASH

Eguberrietako ekitaldiak

Abenduaren 22an, eskolako festa antolatu dute eta 24an herriar zehar eguberrietako kantuak abestuz ibiliko dira haur eta gurasoak. Urtero bezalaxe, Guraso Eskolak antolatzen duen eguberrietako saskia ere prest dute. Mugitu boletoak eskuratu nahi badituzue!



GAES

Entzumen Zentroak

GABON HAUETAN ERE BAI!

"Zaindu zure entzumena"

Kontsulta itzazu zure zentruan kanpainaren ezaugarriak.





R.P.S. Nº 45-56/10.

Mendibil merkatal gunea • Tel.: 943 63 99 10 • irun@gaes.es • www.gaes.es • IRUN

LEITZA

GIZARTEA → EKIMEN UGARIREN BIDEZ

Emakumeen aurkako indarkeriari ezezko garbia

Indarkeria sexistaren aurkako tailerra eginen dute Amazabalen

JM BARRIOLA

Emakumeen indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna zen azaroaren 25ean eta horren harira, egitarau mardula antolatu zuen herriko berdintasun batzordeak. Azaroaren 21ean zinean eskaini zuten *Neskak gara eta zer?* antzerkiarekin eman zioten

hasiera egitarauari eta azaroaren 25ean, elkarretaratze jendetsua izan zen iluntzean Lopeneko atarian. Leitzako azokan ere, informazio gunea jarri zuten eta gaiari buruzko informazioa eta txapak banatu zituzten. Amazabal institutuan ere gaia lantzen ari dira eta abenduaren 10ean indarkeria sexisten aurkako tailerra eginen dute DBHko ikasleek. Horretaz gain, Zirkulo tabernan arte erakusketa egon da ikusgai gaiarekin zerikusia duten arte-lanekin.



ARGAZKIAK: AGUSTIN ARANBURU


Torrearen aldeko herri kirol saio berezia

Azaroaren 15ean kirol jaialdi ederra izan zen herrian *Torrea eta kirola auzolanean* lelopean. Hasieran plaza egitekoa bazen ere azkenean frontoian egin behar izan zuten eguraldiak baldintzatuta. Bertan herriar ugarik parte hartu zuten: Aurrerako dantzariak, laisterkariak, herriko gazteak, alkate ohiek... Kirolariak modalitate ezberdinetan lehiatu ziren hiru taldetan banatuta eta jaialdiari bukaera borobila eman ez aitzorik erakustaldia eskaini zuten herriko bi beheranok. Patxi Astibia 72 urterekin, 80 ontzako enborra moztu zuen 12 minutu eta 28 segundotan eta Enrike Bildarrazek 80 urterekin kanaerdikoa mozteko 03:05 denbora behar izan zuen. 600 ikusletik gorak txaloz eskertu zuten ahalegina.

170 saski Errigoraren alde

Errigora ekimenak euskara eta Nafarroako Erriberako produktuak bultzatzea du helburu. Bertako ekoizleei lagundu eta modu sostengarri batean egin-

dako produktuak eskuratzeko aukera ematen du. Gainera, Nafarroako hegoaldeko euskara bultzatzeko irabazien %10 bideratzen da. Leitzeta Areso artean 170 saski eskuratu dituzte.



Pertsonaia

Patziku PERURENA

'Hilen xarma' liburua aurkeztu berri du

Azken 300 urte inguruan, Leitzeta, Areso, Goizueta eta inguruko herrietan gertatu diren heriotza bortitzen berri jaso du Patziku Perurenak *Hilen xarma* liburuan. Bilketa historiko eta etnografiko handi baten emaitza, Elkar argitaletxearen eskutik eman du argitara. Batetik, udal, epaitegi eta elizetako artxi-boak arakatu ditu eta bertan, datu xehez gain, gizartearen berri ematen duten zertzeladak ere topatu ditu. Bestetik, herriaren memoria jaso du, zaharrekin konfiantzan izandako solasaldi luzeen bitartez. Horrela osatu du bilketa mardul eta harrigarri hau, ahozko euskararen kolore eta zaporez ondua. Perurenaren hitzetan, liburuan «hiztun sentzilloek» esateko duten hori biltzen ahalegindu da eta, horregatik, adinekoek kontatutako parteeak tokiko euskararen transkribatu ditu. Liburuaren aurkezpean azaldu zuenez, zeregin honen bidez herri literatura egin nahi izan du, «egungo merkatuan dagoen literatura burgesarekiko ezberdina».

EGUBERRI
ETA URTEBERRI ON!!

AINART
ILEAPAINDEGIA
Elbarren, 67 behea • LEITZA • 948 510 197

Ariztela
DEKORAZIO
TAILERRA
Eguberri on!!

OPARITU:

- ETXERAKO ARROPA, maindirek, koltzak, nordikoak, mantak, sofarako fundak...
- KORTINAK: ehunak, barrak, mekanismoak, kortinak egiteko pieza guztiak...
- EUSKAL JANTZIAK ETA INAUTERITAKO TELAK
- SUJETADOREAK ETA BAINUJANTZIAK: neurriak eskatzen ditugu, zure forma eta neurriak egokitzen direnak eta oso prezio onean

f T. 948 61 06 11 • LEITZA

ERAKUSKETA → MODU IRAUNKORREAN

Zuhaitzen bilduma oparoa ikus liteke udaletxean

92 espezie bildu ditu Jose Migel Elozegi herritarrak



JM BARRIOLA

‘Duela 30 urte hasi zen Jose Migel Elozegi zuhaitzen enborrak biltzen, eta horietatik epaiak atera eta dotore lijatu ondotik, txukun izendatu du espezie bakoitza. Material hori baliatuta erakusketa jarri da orain Udaletxeko lehenengo solairuan, modu iraunkorrean. Guztira 92 espezieetako 106 pieza jarri dira ikusgai.

Denak Leitzako dermion aurki litezkeen espezieak dira. Asko dirudite, baina oraindik espezie gehiago ba omen daude herrian.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Leitzatik Goizuetarako bidea egin dute mendizaleek

Azaroaren 28an egin zuen Mendibil mendi taldeak Leitza kaxkoz kaxko ibilbideko bigarren etapa. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu eta aurrekoan baino lagun gutxiago animatu ziren, 18 hain juxtu. 7:30ean Urtotik atera eta euripean ibili ziren 12:00ak arte. Bidean zenbat ur aurkitu genuen ikus liteke argazki batean. 13.00etan Goizuteara iritsi ziren eta han 23 lagunek ederki bazkaldu eta arratsalde pasa egin zuten. Hurrengo irteera, mugarrien bueltako hirugarrena; Rezola zentraletik, Kortekobordara egingen dute eta ondoren urte amaierako bazkaria egingen dute.

FLASH

Dementzia eta komunikazioaz solasean

Abenduaren 16an, Leitzako Osasun Etxeak eta AFANek antolatuta, *Dementzia duen pertsonarekin komunikazioa* hitzaldia eskainiko du Aintzane Mariezkurren 16:00etatik 18:00etara Udaletxean.

‘Amama’ filma ikusteko aukera

Abenduaren 9 eta 11n Asier Altunaren filma ikusteko aukera izanen da. Ostiralean gaueko 10:30ean eta igande-
an 19:30ean.

Olaia Bazar

Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Garbiketarako Produktuak
Etxeko Tresnak
Herramientak - Oinetakoak
Pijamak - Osagarriak



Landabekoa - Leitza - T. 948 510 437 - 667 675 463



edr'gunea

Ainhua Azpiroz
Estetizista

Laserra • Solariuma
Depilazioak • Makillajea
Aurpegiko tratamenduak
Gorputzeko tratamenduak
Begien edertzea

Elbarren, 67 beheka • LEITZA
T 948 510 273 • edrgunea@yahoo.es



OPARI TXARTELA
Zure esku



ARAKINDEGIA JATETXEA

EUSKAL SUKALDARITZA TRADIZIONALA



Elbarren, 64 • 31880 LEITZA
T. 948 510 052 • 948 510 633
www.restaurantearakindegia.com



OPARI TXARTELA
Zure esku

MUSUNZAR

OSTATU-JATETXEA



Elbarren, 14
948 51 06 07
31880 LEITZA
www.musunzar.com



OPARI TXARTELA
Zure esku

facebook
twitter

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 28AN

Euriak ez zuen Azienda Feria zapuzterik izan

Eskulangileak eta kirol erakustaldiak eskolako frontoiko aterpera eraman zituzten

gardo egileak, txurro egileak edo labaderoan Oihana Insaustik jarritako koadro erakusketak. Kultur Taldeak, Gazte Asanbladak, Gurasoak Guraso Elkartek eta Umore Ona elkarteak, Udalaren laguntzaz antolatu zuten aurtengoa.

Euriaren eraginez, eskulangileen produktu gehienak eskolako frontoira eraman behar izan zituzten. Azienda, artisau eta nekazaritza produktuen postuak ikusgai izan ziren larunbatean. Aziendei dagokienez, betizuak, ahuntzak, zerriak, akuriak, as-toak, zaldikoak, behor-rrak, untxiak, oiloak, ardiak... ikusteko modua izan zen. Yandenek

TTIPI-TTAPA

Urteko zita garrantzitsuenetakoa izan zen herrian azaroaren 28an, Azienda Feri Eguna hamabigarren edizioa, hain zuzen. Azienda, artisau eta nekazaritza produktuen postuak ikusgai izan ziren goizean zehar, baita trikitaliak, joare egileak, sa-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Baserrietako barazki ederrak ere plazaratu zituzten feria egunean.

Ba al zenekien

Egur loteak Herriko Etxean eskatzeko epea ur-tarrilaren 15ean bukatuko dela.

bazkalondoa Elutxa txar-rangak alaitu zuen.

tan zintzilikatua egonen den egutegi eder hau.

EGUTEGIA

Azken urte hoietako ohiturari segituz, herri-ri estu lotutako gai bat hartu eta egutegia publikatu du Goizuetako Ezker Abertzaleak aurtengoa, herriko dantzari-protagonismoa emanez aurtengoa. Ohi berriaren puskak zozketatu zituzten. Bazkaria eta

ARGAZKI LEHIAKETA

3 eta 16 urte bitarteko koei zuzendutako argazki lehiaketa ere antolatu du Guraso Elkartek, feria eguna gaitzat hartuta. Lanak g.elkar-tea@hotmail.com helbidera bidali edo Goxaliko buzoian utzi. Irabazleak sorpresaren bat izanen du sarizat.



AZAROAREN 21EAN DEITU ZUEN UDAL TALDEAK

I. Herri Batzarraren balorazioa

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 21ean burutu zen udal taldeak deitutako I. Herri Batzarra. 25 pertsona elkartu ziren eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Lehenengo, udalkideek, herri programari errepasoa egin zien, orain arte landutako hainbat gairen inguruan eta ondorengo hilabetei begira, burutuko dutenaren inguruan. Horien artean aipatu, etxebizitzaren inguruan sortuko den lantaldea. Ondoren, 2016ko aurrekontuei begira, proposamenak jasotzeko momentua izan zen eta hor, herritarren txanda izan zen. Batzarrera gerturatutakoek, hurrengo urtean dirua zertan inbertitu proposamenak egin zituzten. Antolatzaileen esanetan, oso parte-hartzailea izan zen batzarra. Proposamen asko atera ziren, beraiek espero zutena baino ideia gehiago eta anitzagoak. Orain, 2016ko aurrekontuetarako aurreikusiak dituzten diru sarreraren arabera erabaki eta aztertu beharko da, proposamen guzti horietatik zein den bideragarriena eta zeini eman lehentasuna.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Xalto Saria irabazi zuen Alazne Untxalo iturendarrak

Azaroaren 20an Umore Ona elkartearen jokaturako Xalto bertso sariketaren hamahirugarren edizioaren finalean Alazne Untxalo iturendarra nagusitu zen, Saioa Alkaizarekin buruz burukoa jokatu. 40 lagun bildu ziren afarian. Untxalo eta Alkaizarekin batera Patxi Castillo, Iker Gorosterrazu, Manex Mailharin, Sarai Robles eta Egoitz Gorosterrazu aritu ziren kantari.

GIZARTEA → HERRIGINTZA ESKOLAN EGINA

Olentzeroren panpina berria izango dugu aurten

Herriko guraso eta umeen artean osatu dute

Ainhoa ANSA

Abenduaren 8an, askorentzat jai eguna izango dela aprobetxatuz, herrigintza eskola antolatu da. Herritarrek bildu eta herriarekin zerikusia duten gaiak lantzea izan ohi da eskola hauen helburua eta oraingo honetan Olentzeroren panpina berria egitea zen asmoa. Guraso eta umeak elkarlanean aritu, kantak entsaiatu... segituan iritsiko diren gabonetarako dena prest edukitzea da asmoa!

Ez da hau izan abenduan antolatutako ekitaldi bakarra. Euskararen Egunaren harira, Pello Añorga ipuin kontalaria etortzekoa zen herrira, arratsaldeko 6etatik aurrera udale-



ARGAZKIA: GIZARTE ZERBITZUAK

Leitzaldeko udal langileek formakuntza saioak egin dituzte

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko udal langileak azaroaren 11 eta 18an, 8 orduko ikastaro baten parte hartu dute. Ikastaro honek bi helburu nagusi zituen; batetik, Babestutako Enpleguan lana egiten duten pertsonak bideratzen ikastea eta bestetik beharrezkoak diren ezagutza eta trebetasunak lantzea.

txeko ganbaran saioa eskaintzera.

Beste behin ere inkomunikatuta

Azaroaren 23an, gotik bota zuen euria eta arratsaldean Arano inkomunikatua gelditu zen berriez ere. Urumeabidera atera zen puntu bate-

an baino gehiagotan, eta Goizuetara eta Hernanira joateko bideak itxita gelditu ziren. Herritarrek, batzuk irten ezinda eta beste asko etxera bueltatu ezinik gelditu ziren. Goizuetara bidean, Arranbiden egiten genuen Urumearekin eta honen zekarzkiek ur zakar eta ur ertzeko ondakine-

kin topo. Hernanira bidean Aboñon atera zen erreka, errepidea puntu honetan ere itxiz. Zorionez, arratsalde eta gau bateko kontua izan zen eta hurrengo egunean urak bere bidera itzuli ziren. Horri esker, jendeak lanera normaltasun osoz joateko aukera izan zuen.

GIZARTEA

Azaroaren 25aren bueltan egindako ekitaldiek gogoe-tarako premia erakutsi dute

Ainhoa ANSA

Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko hainbat ekintza izan dira herrian. Hasteko, Nafarroako Berdintasun Teknikariek *Emakume eta neskatilen kontrako indarkeria guztien aurka* izenburupean idatzitako adierazpenarekin bat egin zuen Aranoko Udalak. Difret pelikula ere ikusteko aukera egon zen emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean, berdintasun batzordeak antolatuta, eta bertaratu ziren emakumeek gustura ikusi zuten. Behar bada, emakumeak barrik agertu izana gogoeta egitekoa litza-teke, horrelako egun batek guztiok elkarrekin egin beharreko lan-keta bat eskatzen ez ote duen.

5.000
baietz!

www.domeinuak.eus

Abenduan,
.EUS
domeinua
9.95ean
denontzat

eus

.EUS komunitateak erronka berria du: 5.000 domeinuen langa gainditzea.
Anima zaitetz eta sortu zure .EUS domeinu-izena!

BAZTAN

KULTURA → KONZERTUAK, ANTZERKIA, ERAKUSKETA

Abenduko kultur agenda oparoa prestatu dute aurten ere

Belateko baselizaren inguruko solasaldi-erakusketa izanen da

TTIPI-TTAPA

Urtea ongi akitzeko, azken hilabetea kultur ekintzaz beterik dator Baztanera, adin eta gustu guztietarako eskaintzak oparituz. Antolatzaile ezberdinak dau-de egitarau honen gibelean: Baztango udaleko kultura batzordea, Legate elkarteak, Baztan udal musika eskola, Eli-

zondoko abesbatza, Almandozko herria eta Baztan-Urdazubiko Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak, bertzeak bertze.

Abenduaren 13an, igandea, *Adarretatik zintzilik* helduentzako antzerkia eskainiko dute Irurritako Damaso Zabala Gizarte Bilgunean Ane Zabala eta Galder Perez aktoreen eskutik, arratsaldeko 7etan.

Hilaren 18an, ortziral, Mikel Ramos arkeologoak *Baztango Donejakue bidearen berreskuratzea: Belateko Donejakue baselizaren arkeologia-induske-*



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baztango Donejakue bidean dagoen Belateko baseliza hizpide izanen da hilaren 18an.

ta hitzaldi-erakusketa eskainiko du Almandozko Beola jatetxearen aretoan, 19:30ean.

Lekaroz *Faustina rekin munduratuz* antzezlanak ikusteko aukera izanen da abenduaren 26an, asteartea, Eskola zaharrean 12:00etan, Legate elkarteak antolatuta. Eta arratsaldeko 6etatik aurrera Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okaberen *Hego Amerika ezagutuz* dokumentala eskainiko dute elizan.

EZ DADILA MUSIKA ISILDU

Musikak ere bere lekua izanen du abenduko egitarauan.

Abenduaren 9an, asteazkena, Elizondoko abesbatza tikiaren entsegu irekia egingen da Irurritako Damaso Zabala Gizarte Bilgunean arratsaldeko 7etan.

Hilaren 12an, larunbata, Ibaizte eta Elizondoko abesbatzek ahots kontzertua eskainiko dute Arizkongo elizan 20:00etan.

Udal musika eskola-ko ikasleek abenduaren 19an, larunbata, Arizkongo elizan eguberrietako kontzertua emanen dute 17:00etan. Eta abenduaren 22an, Elizondoko Fco. Joaquin Iriarte Zahar-Etxean egonen dira 17:30ean.

Akordeoilari taldeko ikasle eta ikasle ohiek emanaldia eskainiko dute Elizondoko elizan abenduaren 26an, 18:00etan, Migel Iparragirrenen zuzendaritzapean.

Natura Etxea
BELARDENDA ETA DIETETIKA

SENDAGAI NATURALAK
JANARI EKOLOGIKOAK
ARGALTZE ETA MEDIKU KONTSULTA
KOSMETIKA NATURALA
JANARIEN INTOLERANTZIA TESTA

Eta Gabonetan:
TURROI ETA POLBOROI EKOLOGIKOAK
BAITA SASKI BEREZIAK ERE

Gabon zoriontsuak pasa!!

SANTIAGO, 47 ELIZONDO T. 948 580 203

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttppi.eus

OLARI
— jatetxea —



Tel. 948 452 254 · IRURITA
rteolari@hotmail.es · www.restaurantteolari.es



GIZARTEA → LEGEALDI HONETAN EGIN NAHI DUTE

Bide Berdearen Elizondorainoko tarteari bulkada eman nahi zaio

Udalez gaindiko plan sektorial bezala izapidetu beharra dago

TTIPI-TTAPA

Bidasoko Bide Berdea Elizondoraino ekartzeko asmoa aspaldi-koa da. Horren haritik, azaroaren 30ean Baztan

eta Bertizarana udale-tako ordezkariak, Elizondo eta Lekarozko alkateak eta Cederna-Garalurreko teknikariak ibil-bidea behin betiko zehazteko hasierako proiektuan barna ibili ziren. Elizondorainoko tarteari Bertizarana eta Baztango udalerriak hartzen dituen udalez gaindiko plan sektorial bezala izapidetu beharra dago. Horretara



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertizarana eta Baztango udal ordezkariak, Elizondo eta Lekarozko alkateak eta Cederna-Garalurreko teknikariak ibili ziren etorkizunean Bide Berdea izan daitekeen eremuan.

rako, bidearen hasierako proiektua egin zuten; haatik, jasotako txostenekin eta Baztango herritako alkateen iritzia-
ren faltan, Bide Berdea pasatu daitekeen tokitik barna ibili ziren, Lekaroz eta Elizondo arteko loturarik hoberena zehazteko eginahal be-

rezia eginez. Bildutako ekarpenekin LKS aholkularitzak behin betiko proiektua idatzi behar-
ko du. Ondotik Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko plan sektoriala onartu beharko du eta, hala behar izanez gero, desjabetzak egingen dira. Azkenik

Estatuko gobernuari finantziabidea eskatu beharko zaio. Printzipioz Espainiako Gobernuak Bide Berdeak %100ean finantziatzen ditu. Gauzak ongi bidean Bide berdearen Elizondorainoko tartea legealdi honetan egin beharko litzateke.

ABENDUAREN 11N IRURITAKO JAUREGIARTEAN AURKEZPENA

Jesus Jaimerenaren argazkiak liburuan bilduak

TTIPI-TTAPA

Iruritarrek, Jesus Jaimerenaren argazkiak liburuen aurkezpena egingen dute abenduaren 11n, ortziralean 19:30ean, Iruritako Jauregiartearen.

Liburu honetan 1960. hamarkadako Iruritako herria eta herritarrek argazkitan ikusten ahal dira. Jesus Jaimerena apezka Iruritan bizi zenean ateratako irudiak dira. Originalak diapositibetan daude, herritarrek ikusteko emanaldiak prestatzen zituelako.

Jesus Jaimerena Salaburu 1929ko urriaren 16an Iruritan sortu zen eta 24 urte zituelarik apezta zen. Don Jesus, apezka argazkizale afizionatua izateaz gain, pilotazalea, musikazalea eta euskaltzalea izan zen, eta horrela segitu zuen 70. hamarkadaren hasmentan Lekunberrira joan zenean ere. Hala ere, egun, bere aportazioari buruz galdetutakoan, berak ez zuela deus egin dio, afera guzti horiek iruritarrek egin zituztela!

ELBETEko POSADA
6 logela bainugelarekin
eta egongela bat



- Eguneko menua
- Karta
- Enpresa otorduak
- Afaltzeko plater bereziak prezio berezian
- Bataioak ...

Karrikaundi z/g
ELBETE
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com



www.posadaelbete.com

 **arteka20**
arkitektura eta zerbitzuak

www.artekabaztan.com

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610

ORAIN PASSIVHAUS ERE BAI

Patri Valer



CERTIFIED PASSIVE HOUSE DESIGNER

Juan Mari Aleman



CERTIFIED PASSIVE HOUSE TRADESPERSON

BAZTAN

GIZARTEA → AZAROAREN 26KO UDAL BATZARRAREN ERABAKIAK

Lan taldean arkitektu teknikoa eta hondakin teknikaria izanen ditu Udalak

Lehenbizikoa ahobatez onartu zuten, bigarren UPNren abstentzioarekin

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 26ko udaleko ohiko osoko bilkuran udaleko lan taldean arkitektu teknikoa izatea ahobatez onartu zen. Gobernu taldean diren EH Bilduk eta Ezkerrak proposaturik eta Auzolanean, UPN eta Geroa Bairen babesarekin hirigintzako udal zerbitzua hobetzen lagunduko duen erabakia hartu zen. Arkitektu teknikoaren lana izanen da hirigintzako eta eraikuntzako txostenak tramitatzea, zehapen espedientei buruzko txostenak egitea, irekiera eta lehen erabilera espedientei buruz informazioa ematea eta horiek izapidetzea, abiarazi nahi diren jardueri buruzko galderak erantzutea,



UTZITAKO ARGAZKIA

Azaroaren 25aren inguruan hainbat ekitaldi egin dituzte

Emakumeenganako indarkeriaren inguruan hainbat ekitaldi egin dituzte azaroan. Elizondoko Lanbide Eskolan eta Lekarozko BHI Institutuan egin ziren hezikidetza tailerren (argakian), berdintasun gaien inguruko formazio saio irekien eta Xabier Odriozola Ezeitzaren liburu aurkezpenaren ondotik, *Itsaspeko Bihotzak* erakusketa zabalduko zen. Iruritan antzerkia ere egin zen eta azaroaren 25ean, elkarretaratze jendetsua egin zen Elizondoko plazan, euripean.

udal lanetarako memoria teknikoak egitea, udal lanak zuzentzea eta egindako lanak egiaztatzea, udaleko mantentzen zerbitzuak gainbegiratu eta aholkatzea, berraketa berraketa. Arkitektu teknikoaren kostua urteko 44.323 eurokoa izanen da. Hilabetero 1.661 euroko soldata garbia izanen du eta eus-

karako C1 maila izan beharko du. Azaroaren 26ko bilkuran udaleko lan taldean arkitektu teknikoa izatea onartu ondotik orain enplegu publiko deialdia antolatu beharko da. Horretarako beharrezkoak diren enplegu tekniko eta administratiboak eginik, ondotik hautaketa azterketak egingen dira.

HONDAKIN TEKNIKARIA ERE BAI

Pleno berean, udal lan-taldean hondakin teknikaria izateko pausua eman zen. EH Bildu eta Ezkerraren proposamena Auzolanean eta Geroa Bairen babesarekin eta UPNren abstentzioarekin onartu zen.

Azkeneko bi urteetan udalean kontratu la-

borala zuen hondakin teknikaria egon da. Kontratu aldia akiturik, pos- tu hori udaleko lan-taldean kontratu administratiboarekin ateratzeko erabakia hartu da. Ikusirik hondakinen kudeaketa politika publikoetan hartzen ari den indarra eta Europatik eta Nafarroatik finkatzen diren birziklatze helburuak, udal mailan helburu horiek betetzeko baliabide iraunkorrak behar dira. Bertzeren artean, arloa bideratzeko teknikari gaituak.

Nafarroako hiri hondakinen plan berriak 2025erako bilketa berezituaren maila %70eko izateko helburua du eta organikoena %50eko. Gainera obretako hondakinen trataera eta berraketa zenbait gai hor daude. Hondakin teknikariak urteko 39.358 euroko kostua izanen du eta hilabetero 1.589 euroko soldata garbia izanen du. Ondoko asteetan pleguak prestatu ondotik lan eskaintza publikoa egingen da.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

santxotena jatetxea



Pedro Axular, z/g
31700 ELIZONDO
T. 948 58 02 97
restaurante@santxotena.es
www.santxotena.es

GIZARTEA → UPN, GEROA BAI ETA AUZOLANEAN

Zahar Etxeko estatutuen berritzea gelditu dute

UPNk eta patronatuko albazeek aurkeztutako alegazioan udalak estatutuak berritzeko eskumenik ez duela dio

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte zahar etxeko estatutu berriei buruzko alegazioetaz erabaki behar zen Baztango Udaleko az-

keneko osoko bilkuran. UPNk eta patronatuko albazeek aurkeztutako alegazioetan udalak estatutuak berritzeko eskumenik ez zuela zioten eta, hori horrela, UPNk, Geroa Baik eta Auzolaneanek alegazio hori onartu eta berritzeko prozesua bertan behera gelditu zen.

Haatik, zahar etxea erakunde publiko autonomo edo fundazio publiko izanik estatutuen berritzea udalaren eskumena dela argudiatu dute EH Bilduk eta Baztango Ezkerrak. Horretarako udal idazkarien txostenak aipatu dituzte eta TANen ju-

risprudentzia ere bai.

Zahar etxeko estatutuen berritzea aurtengo apirilean abiatu zen. Helburua diru publikoarekin finantzatzen den erakunde gardenagoa eta demokratikoagoa izatea zen. Horretarako, bertzeren artean, patronatuko kuarteletako ordezkariak kuartel bakoitzeko herriko batzarren ongi ikusiarekin hau-


tatzea proposatzen zen. Orain patronatuak aukeratzeko dituzte.

Baztango Mendigoizaleen urte akabaila

Mendirik mendi ibili ondotik, Baztango Mendigoizaleek urtea akitzeko ekitaldi pare bat antolatu dituzte. Abenduaren 18an, ortziral

arratseko 8etan Elizondoko Arizkunenean *Baztandik Alpeetara eta Norvegiara Mendieskia* emanaldia eskainiko dute Arkaitz Muratori eta Txomin Petrikorenak.

Abenduaren 23an, asteazken arratseko 8etan *Iran txirindulaz* ikusentzunezkoa eskainiko du Xabi Torresek Erratzuko Etxelebert txoko elkartean.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Oinezko antolaketa taldearen bizkar-besta

Urtebete luzeko lan gogorrari modu goxoan bukaera emateko, Nafarroa Oinezko antolaketan batzorde ezberdinetan lanean aritutakoek bazkaria izan zuten azaroaren 21ean Antxitonea trinketeen. Egindako lanaz harro, lagunartean giro ederrean egin zuten bazkaria eta bazkalondo luzea ehun lagun baino gehiagok.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxe: 948 581 210

BAZTAN

GIZARTEA → ABENDUAREN 10EAN BILERA EGINEN DA

Herri-lurretako zabortegeien garbiketa plana martxan paratu nahi du Batzar Nagusiak

Mapa osatzeko herritarren laguntza eskatu dute

TTIPI-TTAPA

Herri-lurretako zabortegeien garbiketa plana martxan paratu nahi du Batzar Nagusiak eta horretarako batzorde berezi bat ere osatu dute. "Herri-lurrak gure altxor eta ondare dira eta Baztandar guztien ardura da hauek garbi mantentzea", aipatu du te Batzar Nagusitik. Baina, tamalez, aunitz dira gaur egun zikinak dauden xokoak. Planaren barnean, lehenik egungo egoeraren edo abia-

puntuaren berri izateko diagnosi bat egitea ezinbertzekoa ikusten dute eta horretarako zabortege bezala funtzionatzuten duten puntu hauek identifikatu eta garbitzea beharrezko ikusten dute. Modu berean, hemendik aitzinera mendian eta lekuz kanpo botatzen den zaborraren pilaketa saihestu nahi dute.

Hori dela eta herri-tarregana zuzendu da Batzar Nagusia, lehenik eta behin puntu zikin hauek identifikatzen laguntzeko. Horretarako fitxa bat bete behar da, zer motatako puntu zikina den, non kokatua dagoen eta argazki batekin. Fitxa hau udal bu-



ARGAZKIA ETA TESTUA: AMAIURKO ESKOLA

Terapia zakurrekin tailerra Amaiurko eskolan

Bocalan Biak Bat elkarteko hiru kide eta hiru laguntza zakurren bisita izan zuten Amaiurko eskolan azaroaren 24an. «Nipon, Cake eta Agujak erakutsi ziguten zein abilak diren arropak garbigailutik ateratzen, galtzerdiak kentzen laguntzen, giltzak lurretik biltzen edota ipuinak aukeratu eta aditzen! Esperientzia ederra izan da. Esker mile aunitz Bocalaneko lagunak!» idatzi dute eskolatik.

legoetan utz daiteke, edo hondakinak@baztan.eus helbide elektronikora bidali, 948 580006 telefonora deituz eta SMS edo WhatsApp bidez jakinaraziz (636 759459).

Hasierako informazioarekin sortutako puntu zikinen mapa abiapuntu bezala hartuz, hauen garbiketarako beharrezkoa den Ekin-tza Plana diseinatu eta martxan jarriko dute.

Planaren inguruan informazio gehiago behar edo nahi izatekotan abenduaren 10ean, ortzegun arratsaldeko 7etan Udaleko batzar

aretoan eginen den bilkura informatibora etor-

tzeko gonbitea ere egin dute.

UDALAK ETA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAK

Herrian dabilzan uso-banden kontrako kanpaina hasi dute

TTIPI-TTAPA

Zenbait herritan uso-bandak dabilzalako arazo batzuk sortzen ari dira (adibidez nekazariei ikuluetan, etxetan etab.). Horregatik, Udaletik konponbide bat bideratzeko eta arazoa konpontzeko asmoz, Ehiza eta Arrantza elkarteekin batera plangintza bat antolatu dute.

Juan Cruz Iriarte, Ingurumen, Nekazaritza eta mendietako zinegotziak aipatu duenez, «plangintzaren barne dago jakitea zein herrietan eta zein lekuetan dauden arazoak eta ondotik erabaki nola aurre egin usoei, alde batetik tranpekin eta bertzetik ehizatuz».

BEOLA
Posada-Palacio

Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 002 | www.beola.com

IDOLA OREIA
ileapaindegia

MAKILLAJE ZERBITZUA | KERATINA TRATAMENTUA
BURUA GARBITZEKO AULKIAK SHIATSU MASAJE SISTEMAREKIN

Plazaburua, 9 behe | ELIZONDO | T. 948 580 390
info@idoiaoteiza.com | www.idoiaoteiza.com

GERTAERAK → LANGILE BAT HIL ZEN

Dantxarineko ezbeharraren harira polemika sortu da

Oposizioak salatu du obra-baimena atzera bota zutela epaitegiek

TTIPI-TTAPA

Langile bat hil eta bertze hiru zauritu ziren azaroaren 25ean Dantxarinean, eraikin bat beheiti etorrira. Salto berri bat eraikitze-ko lanean ari zirenean bigarren solairuko zati bat gainera erori zitzairen langileei. 47 urteko langile bat hil zen ezbeharrean eta beste hiru zauritu, horietatik bat, Oizko 25 urteko gaztea, larri eraman zuten.

Urdazubi Elgarrekin udal taldeak salatu zuen, «Nafarroako Administrazio Auzitegiak hala aginduta, eraikin honen obra-baimenak bertan behera geratuta» zeudela. Oposizioak dio «auzitegiak ez zituela balekotzat jo, hirigintza proiektuan zehaztutako gehiegizko altuera gainditzen zutelako». Alkaterearen jokabide «arduragabea» arbuiaut du te, arriskuen jakinaren gainean egonda ere lanak ez zituelako eten.

Santiago Villares alkateak, bere aldetik, adierazi du oposizioko kideek «egoera baliatu eta sarraskijale oportunisten gisara jokatu» dutela, «politikan ez du de-

nak balio». Gaineratu du «ohituak» daudela «euren gezur eta erdizkako egiekin, baina oraingoraino urrunegi joan dira. Ezbeharraren erantzuleak gu garela diote». Ezbeharra gertatu den eraikinaren inguruan epaitegiak emandako erresoluzio bat badela onartu du Villaresek «azaroaren 16an jakinarazi zitzaion Udalari. Eraikinaren altuerari egiten zaio erreferentzia baina eraikina eraisteari espreski egiten zaio uko». Eraikinaren aurreko aldeetako batek, us-tez, 15 metroko gehie- nezko altuera gain- ditzen zuelako abiatu

zen auzibidea eta Villaresen erranetan, «agerikoa da gaizki ulertu bat egon zela planoak interpretatzeko orduan». Behin eta berriz azpimarratu du, gehiegizko altuera «zalantzarik gabe» errespetatuko dela. Epaia berri jakin- dakoan «harritu egin zi- ren eta euren kezka ba- karra arazoa nola kon- ponduko zen eta horrek udaletxearentzat zein kostu ekonomiko iza- nen zuen jakitera mu- gatu zen». Egindako adierazpenak abokatuei helarazi dizkiela ere

ARGAZKIAK: FRANCISCO VARELA-INTERVIDEO

Bigarren solairuko zati bat gainera erori zitzairen langileei. Urdazubi Elgarrekin taldearekin batera LAB, Geroa Bai eta EH Bilduk babestu zuten azaroaren 28an egin zen elkarretaratzea.

azaldu du alkateak «Ur-
dazubi Elgarrekin tal-
dearen aurkako akzio

legalak abiatzeko ma-
teriarik baden ikus de-
zaten».



OPARI TXARTELA
Zure esku

FANTXIKE

Etxeko guztientzat aukera zabala

Jaime Urrutia, 5 • 31700 ELIZONDO • 948 580 312

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus

www.ordoki.com

ORDOKI ZALDITEGIA-HÍPICA

OPARI TXARTELA
Zure esku

IBILALDIK:
Ordu bat, bi ordu...

IBILALDI LUZEAK BAZTAN
BARNA (Egun osokoak)

Zatoz Baztan zaldiz ezaufuzera!

ARIZKUN | Barrio Ordoki auzoa | Tel.: 616 160 115

URDAZUBI

GIZARTEA → AZAROAREN 21EAN

Kultur Etxe eta Turismo Bulego berria inauguratu dute

Nafarroako Gobernuko ordezkariak izan ziren ekitaldian

TTIPI-TTAPA

Manu Ayerdi Nafarroako Gobernuko Ekonomia Garapenaren lehendakariordeak eta Isabel Elizalde Landa Garapena, Ingurumena eta Tokiko Administrazioaren kontseilariak, alkatearekin eta bertze agintariekin batera, Kultur Etxe berria inauguratu zuten azaroaren 21ean.

Eraikin berriak fraideen elurtegiaren eta Urdazubiko errementaldegi zaharren lekua hartzen du, erortzeaz zeuden bi eraikin, alegia. 366 metro koadroko azalera du. Behe-solairuan, bisitariak hartzeko gunea, turismo-

informazioa eta denda txiki bat ditu, eta goiko solairuan, berriz, herriko bizilagunek eta elkarrekin euren bileretarako eta prestakuntzarako erabil dezaketen areto bat.

Eraikin berria abuztuaren 1etik dago irekia, Turismo Bulego gisa. Pertsona bat dute kontratatuta horretarako, eta 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara ematen du zerbitzu. Orain arte, hitzaldiak, konferentziak, film-proiektzioak eta argazki-erakusketa bat hartu ditu, hainbat ekitalditan.

Apiriletik aitzinera, denboraldi altuan, ordegi jarraituarekin hastea espero dute.

Kultur Etxea uda aurretik eraiki zuen Pedroarena, eraikuntza enpresak, eta obraren zenbatekoa 319.199,97 eurokoa izan da, Euro-



ARGAZKIA: ALFIL COMUNICACION

Agintariak, Kultur Etxearen inaugurazioan.

par funtsetatik 50.000 euroko diru-laguntzajaso dutelarik lanak burutzeko (Cederna-Garalur).

Ba al zenekien

Etxelekua gasnategiak World Cheese Awards Sariketan urrezko domina jaso duela Britainia Handiko Birmingham hirian.



ARGAZKIA ETA TESTUA: INIGO IMAZ

Kantu Zaharren Eguna Lugaranan

Urtero bezela, Venta Peioko Lugarana jatetxean ospaturiko Kantu Zaharren eguna arrakastatsua izan zen. Euskal Herri osotik etorritako jendeak euskal kantak abestu eta dantzatu ahal izan zituen.

JATETXEA - ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA • TABAKO-DENDA

ANZA BORDA - URDAZUBI
 (Dantxarinetatik 2km. tara)
T. 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

OPARI TXARTELA
 Zure esku

ASTEAZKENETIK
ICANDERA
GAUEZ BESTA GIROA

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK • PINTXOAK
 MENUAK ENKARGUZ • ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

Pinturas
lñaki Alzuyet margoak

Tel: (0034) 659 862 417
 31711 URDAZUBI (Na)

**FATXADAK,
 BARNEALDEAK
 eta
 PLADURRA**

pinturasalzuyet@yahoo.es

ABELZAINNTZA → URTE GUZIZ 300 TONA HARAGI

Kintoa sormarka lortzekotan da hamalau urteko lanaren ondotik

Euskal xerriaren kalitatea aitortzeko

Franck DOLOSOR

Ezpeletako piperra, Iratiko gasna eta Irule-

giko arnoen ondotik, laugarren sormarka erdiestekotan dira Ipar Euskal Herriko laborari eta ekoizleak: Kintoa euskal xerriaren labela aitortzen duena hain xuxen. Senperen ere indarrean izanzen da eza-gupen berri hau lehen



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Agintariak, Kultur Etxearen inaugurazioan.

bi aitortzak jadanik diren bezala. Euskal Herrian arrunt galdua zen euskal xerri arraza 1989an Parisko laborantza saloian eza-gutu zuen Pierre Oteiza aldudarrak. Rennes eta zenbait parketan ziren euskal xerriak erosi eta

Alduderat ekarri zituen arraza berpizteko gisan. Gaurko egunean 100 langile biltzen dituen saila sortu da eta 14 urteko lanaren ondotik sormarka lortzekotan dira. Urte guziz 3.000 zerri eta 300 tona haragi ekoizten eta transfor-

matzen dituzte munduan barna saltzeko, laister Ameriketako Estatu Batuetan. 50 milioi euroko irabaziak sortzen ditu urtean euskal xerriak. Saila haunditzeko ekoizle berriak miatzen dituzte, baita Senperen ere.

SENPERTARREN TESTIGANTZA PARIS ETA BRUSELAN

Parisko atentatuek samin eta ezinegon handia sortu dute

TTIPI-TTAPA

Parisko atentatuek ezinegon handia sortu zuen Senperen ere, herritar gehienek familiako norbait edo lagunak baitituzte argien hirian. Jérémy Troitin kazetari senpertia BFM telebistako langilea oporretan zen atentatuak gertatu zirelarik baina lantokirat itzuli denetik ez du lan eskasik. Giro arraroa bezain dramatikoak jasan dute lehenik baina ondoko egunetan normaltasuna itzuli dela azpimarratzen du.

Bertzalde, Belgikan ere alerta egoeran egon dira. Bruselako herritarrek etxean egon behar izan dute lau egunez lanerat joan gabe, hauen artean Mélody Omnès senpertia. Saltzaile gazteak dio orain armadaren zaindaria daudela alde guzietan. Gobernuak ordainduko dizkie kalte ordainak.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Hego Lapurdiko hautetsiak herri elkargo bakar baten alde

Ipar Euskal Herrian herri elkargo bakarra sortzearen proiektua gero eta indar gehiago hartzen ari da. Herriko etxeko hautetsiek aho batez onartu zuten ideia eta gehiengo osoa izan zuen ere hego Lapurdiko hirigunean. Herritarrei informazioa banatzeko herri herri dabilen autobusa apailatu du Batera plataformak. Hendaiatik abiatu zen egunean bertan ziren Christine Bessonart Senpereko andere auzapez ohia eta Peyuco Duhart Donibane Lohizuneko auzapeza.



DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrecea@yahoo.es

ALTZATENEA JATETXEA



© (0034) 948 599 187
31710 ZUGARRAMURDI - NAVARRA

SARA

GIZARTEA → AZAROAREN 20AN BILKURA EGIN ZEN

Urre miaketa proiektuak ingurumenaz axola bixtu du

126 kilometra
koadroko
eremua eta
hameka herri
hunkitzen ditu

Joana GERENDIAIN

Ingurumenaz axola-
tzen den CADE elkartek
bilkura ireki bat animatu du azaroaren 20an Lur Berrigelan, gaia izan-
ki SUDMINE mehategi
konpainiak urre miaketa-
tari buruz egin duen bai-
mena galdera. Proiektu
honek 126 km²ko ere-
mua eta 11 herri hunki-
tzen ditu: Uztaritze, Hal-
tsu, Jatsu, Larresoro,
Kanbo, Itsasu, Luhusoa,

Senpere, Zuraide, Ain-
hoa eta Sara. Herriek
ezetza emanik ere,
azken hitza Ekonomia
ministeritzak ukanen du.
Bilkura horretan Béatri-
ce Cauuet arkeologoak
azpimarratu ditu proiektu-
aren onarpenak ekar-
tzen ahal dituen ondo-
rio ezezkorrak ingurume-
narentzat: ura trumilka
erabiltzea, merkurio eta
arsenikaren zabaltzea
bertzeak bertze, kenka
txarrean aurkitzea (AOP
Ossau Iraty, AOP Ezpe-
letako biperra...). Galde-
gina izan da ere herrie-
ri erne egotea hartuko
diren erabakierik buruz
bereziki haien erabakia
ukatua baldin bada.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 19an etorriko dira

Abenduaren 19an, Sarako haurrek eta gurasoek ongi-etorria egingen diete Olentzero eta Mari Domingiri. Hitzordua arratsaldeko 5etan emana da plazan, lehen denbora batean musikariekin herrian barna ibiliko dira eta ondotik plazan elkartuko dira kantuak kantatzeko.

Idoki eguberriko merkatua

Abenduaren 20an, igandearekin Idoki labe-
la duten hogoi bat ekoiz-
le eta hamar bat esku-
langilek parte hartuko
dute eguberriko merka-
tuan. Egun osoan iraga-
nen da, 10:00etatik goi-
ti polikiroldegian. Base-
rriko produktuak jan eta
edateko aukera izanen
da. laz bezala, eltzeka-
ri hoberenaren lehiake-

ta egingen da, bertako eta
sasoineko barazkiekin
egina izan beharko da
eta parte hartzaileek Ido-
ki produktu bat sartu be-
harko dute errezetan.
Ondotik ekoizle eta kon-
sumitzailez osaturiko
epaimahaiak sariak ba-
natuko ditu: lehena apai-
ru bat da bi pertsonen-
tzat Olhabidea jatetxe-
an eta bigarrena 50 eu-
roko eroste bono bat
eguberriko merkatuan
baliatzeko.

Kirol emaitzak

Errugbilariek galdu 54-7
Pouillonon kontra, eta 8-
10 St Jean de Marsacq-
en kontra. Eskubaloian,
seniorrek Senpereren
kontra galdu 25-16, Urru-
ñaren kontra 24-21 iraba-
zi, 18 urte azpikoek gal-
du 15-8 Mourenx-en kon-
tra; 15 urte azpikoek 11-
10 galdu Burosen kontra,
13 urte azpikoek 44-21
Bruges-en kontra eta 11
urte azpikoek 16-9 iraba-
zi Donapaleuren kontra.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Martzutzak

Olentzerok eta Erregeek
MARTZUTZAK-en
erosten dute

♥ Gustoko dituzun opariak...
♥ Sorpresa emateko gustatzen
zaizkizun opariak...

ABENDUAN
Larunbat
arratsaldetan IREKIA

Bidasoa, 12 BERA • 948 631 425



EZKONTZAK

Ez da datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Ibai Huarte Juanotena, Narbartekoa, azaroaren 25ean.


Enai Iribarren Ubiria, Lesakakoa, azaroaren 27an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Carmen Zubigarai Iturria, Lesakakoa, azaroaren 19an, 93 urte.

Juana Daintziart Telletxea, Elizondokoa, azaroaren 19an, 81 urte.

Consuelo Sanzberro Istilart, Elizondokoa, azaroaren 20an, 89 urte.

Serapio Sagaseta Sagaseta, Donamariakoa, azaroaren 20an, 81 urte.

Isabel Erdozain Gaztelu, Elizondokoa, azaroaren 21ean, 96 urte.

Ramoni Aizpuru Perurena, Goizuetakoa, azaroaren 21ean, 90 urte.

Carmen Txoperena Etxarte, Lesakakoa, azaroaren 22an, 89 urte.

Barbara Saralegi Zabaleta, Leitzaakoa, azaroaren 23an, 88 urte.

Candido Mazizior Larralde, Arantzakoa, azaroaren 24an, 91 urte.

Virgilia Mendiburu Gortari, Arizkungoa, azaroaren 25ean, 77 urte.

Juan Martin Aleman Zabaleta, Leitzaakoa, azaroaren 27an, 78 urte.

Jose Mari Etxenike Etxenike, Elizondokoa, azaroaren 28an, 62 urte.

Pablo Zubiri Bengoetxea, Elizondokoa, azaroaren 28an, 83 urte.

Itziar Ibarra Indakoetxea, Zubietaakoa, azaroaren 28an, 78 urte.

Miguel Guerra Urtxegi, Igantzakoa, azaroaren 28an, 81 urte.

Jose Ignacio Txoperena Legasa, Berakoa, azaroaren 29an, 68 urte.


Norberto Lazkano Arrieta, Berakoa, azaroaren 30ean, 75 urte.

Jose Ignacio Maritorea Larralde, Doneztebekoa, abenduaren 1ean, 52 urte.




**Jose Ignacio
MARITORENA LARRALDE**

*Askin Haur Eskolak eta Udalak
famiaren saminean eta atsekabeen
bat egiten du.*



DONEZTEBEN, 2015EKO ABENDUAREN 1EAN

Rekordatorioak
egiten ditugu



Koskontako Bidea, 7-1
LESACA | 948635458

Sei urtez erronkarik onartu gabe egon ondolik, abenduaren 20an *Arria V.aren* aurka lehiatuko da Donato Larretxea Tolosako (Gipuzkoa) Zezen plazan. Eguerdiko 12etan

hasiko da norgehiagoka, 24.000 euro jokoan, hogeikanaerdiko ebaki beharko dituzte. Beteranoa bata, gaztea bertzea; nafarra eta gipuzkoarra aurrez aurre. Urteak zeramatzan

Larretxeak apusturik jokatu gabe eta handia da sortu den ikusmina. Are gehiago, Larretxeak hau bere azken apustua izanen dela adierazi ondolik.

Donato LARRETXEA | Arantzako aizkolaria

«Arria V.aren aurkako apustu hau, azken apustua izanen dela uste dut»

E. IRAOLA |

Aizkorak zorrozteko tenorea da. Abenduaren 20a burutan, gorputzari azken ahalegin gogorrak eskatzekoa «azken astera arte gorputzari zukua ateratzen saiatuko naiz, baldin badut behintzat» aipatu dio TTPI-TTAPari Donato Larretxeak.

2015eko martxoan onartu zuen Xabier Orbegozi, *Arria V.aren*, aurkako apustua «Azpeitin apostu bat ikusi ondolik, Errezil aldeira sartu ginen bazkaltera. Hantxe harrapatu genituen Arriaren kudrilakoak. Haiek gu xixatzen hasi ziren eta guk ere atzera ez egin eta aurrera. Hantxe hasi zen guztia» azaldu du.

Prestatzeko nahikoa denbora bazela ikusi eta «frango ongi» hasi ziren entrenatzen, baina uda partean gora behera batzuk izan dituela aitortu du «gerriko arazoei aspaldian ibiltzen naiz eta uda partean minnezka hasi eta geldirik egon beharra izan nuen. Baina hobera egin eta azkeneko hiruzpatalu hilabete hauetan serio xamar hasi eta ongi ari naiz lanean».

ENTRENAMENDUA BETIKO ERARA

Entrenatzaile fisikoak hain modan dauden garaian, «betiko martxan» segitzen du en-



ARGAZKIA: XABIER TREJO ETA KONTRALUZ ESTUDIOA

Abenduaren 20an, Tolosako zezen plazan ariko da *Arria V.aren* aurka.

ETORKIZUNAZ

«Berrogeita hamabortz urte dauzkat, berrogeita hamaseitara noa eta ez dago ibiltzerik joko munduan. Erakustaldi, lehiaketetan ibiliko naiz baina apustuak beti badu bestelako tentsioa, tartean diru jokua eta orduan etortzen dira estuasunak».

ten da, baina, gainontzekoan nahiko poliki sentitzen naiz».

Aurkaria ere ez da nolanahikoa «aspaldian preparatzen ari da, jokuak dabil eta ongi preparatua ikusi dut azken erakustaldi eta lehiaketetan. Sasoi betean dago bera eta adinean alde handia dugu, koxka handia da».

20 kanaerdiko ebaki beharko dituzte, «erdibana plazaratuko ditugu, bakoitza bere gus-tukoarekin joango da». Materialak baten edo bertzearen alde mugidezake balantza «bartzuetan ipurdiarekin

etortzen da, lana sartzeraz joaten dira eta hori aizkora hasi arte ez dago jakiterik».

IKUSMIN HANDIA

Ikusmin handia sortu du apustuak «Arria-tarrak fama handiko aizkolaria dira, ni ere aspalditxoan utzita egon naiz apustu mundu hau. Ibili bai baina kapritxo handiegirik gabe aritu naiz eta orain berriz motorra martxan jartzea kosta egin zaigu». Ez da izan baina, hori ikusmina sortzearen arrazoi bakarra, apustu munduan bere azken erronka izan litekeela adierazi du eta Larretxeak «adin honestan ez du merezi, asko sufritu behar da, lanari segi behar zaio eta denetara ezin da ailegatu. Berrogeita hamabortz urte dauzkat, berrogeita hamaseitara noa eta ez dago ibiltzerik joko munduan. Erakustaldi, lehiaketetan ibiliko naiz baina apustuak beti badu bestelako lotura bat tentsioa, tartean diru jokua eta orduan etortzen dira estuasunak». Dagoeneko nabari du tentsio hori gorputzean «eguna iristeko zain baino, pasa nahizik nago, pixka bat lasaitzeko».

Abenduaren 20an lehiatuko da tentsioa. Nafarra eta gipuzkoarra aurrez aurre. Aizkorakolpeka erabakiko da nor den irabazlea.

MENDI LASTERKETAK → 2010EAN LORTU ZUEN LEHENBIZIKOZ

Nafarroako taldekako txapelketa irabazi du Manttalek bigarrenenez

Izaga Traileko sailkapenetan izandako zenbait akats moldatu ondotik bigarrenenez lortu du titulua

TTIPI-TTAPA

Manttale taldea, azkenean Nafarroako txapeldun izan da Nafarroako mendi lasterketan. Aza-

roaren 1eko Izaga Trail lasterketan erabaki zen txapelketa eta hasiera batean laugarren izan zen Berako taldea. Baina sailkapenean izandako akats batzuk moldatu eta gero, azkenean titulua eskuratu du bigarren aldiz.

Azaroaren 1ean jokatutako Izaga Trail lasterketan izan zen Berako taldea, 26 kilometrotako ibilbidean. Baina, puntuazio sisteman egon ziren akats batzuk zirela medio, eta antolakuntzak

eta Nafarroako Federazioak egiaztapenak egin eta gero garaipena Txurregi Taldeari eman zitzaion. Lehenengo modifikazio honen ondoren, Manttale bigarren izatera pasa zen, lehen aipatutako Txurregi gibeletik eta Sakana Bizirik taldearen aitzinetik.

Baina Trail Run 19 taldeak aurkeztu zuen erreklamazioa eta gero, Nafarroako Federazioak berriro ere puntuazio sistemak egiaztatu behar izan zituen, izan



UTZITAKO ARGAZKIA

Manttaleko korrikalariak Izagan.

ere, emakumezkoen sailkapenak ez baitzuten kontuan hartu, taldekako sailkapen orokorra gauzatzeko.

Erreklamazio hau kontuan hartu eta gero, Manttale lehengo postua eskuratu uen (508 punturekin), Txurregi (502) eta Trail Run 19ren (468) aitzinetik. Manttalerentzako puntuak Unai Santamariak (2.), Julen Errandoneak (17.) eta aurten Manttalekin korrika egiten duen Beteluko Maddi Sotilek (3. emakumezkoE-

SAILKAPENA		
1	MANTTALE	508
2	Txurregi	502
3	Trail Run 19	468
4	Sakana Bizirik	434
5	Zabalarte	428
6	Trizurko	414
7	Naf.Suhiltzaileak	332

tan) lortu zituzten. Aipatzekoa da, Manttalen bigarren aldia dela Nafarroako taldekako titulua lortzen duela, 2010ean Lakuntza-Aralar lasterketan lortu baitzuten lehenengoa.

GARRAIOLARI TITULUA

2016ko IKASTAROA

Ez baduzu
gainditzen
2. ikastaroa
doan

ON-LINE
EDO
PRESENTZIALA

Emitza bikainak:

2010 %72

2011 %81

2012 %87

2013 %71

2014 %92

Errekorra 2015ean
%100ak gainditu zuen

INFORMA ZAITEZ

948 26 13 15 Bulego orduetan

680 11 06 51 Migeltxo

Nafarroan eta Gipuzkoan



abenduak 10 - urtarrilak 14

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Antzerkia




GAZTELU | 2015.12.12

>> **Oholtza gaineko hiru emanaldi gau bakarrean ostatuan**

Gaueko 10etatik aitzinera, *Eltxoak*, *Un piano por favor* eta *Gaizka eta Xanti* emanaldiak ikusteko aukera izanen da dohainik Gazteluko ostatuan.

Argazkilaritza



IRURITA | 2015.12.11

'Iruritarrak' liburuaren aurkezpena Jauregiarte tabernan

60.harmakadako Irurita eta bertako herritarrak argazkitan bildu zituen Jesus Jaimerena apezak. Horiekin liburua osatuta, 19:30ean aurkeztuko dute emaitza.

Tailerra



LESACA | 2015.12.19

'Haurren beharretan zentratutako arreta' landuz

Testuinguru naturaletik abituta, haurrekin lantzeko terapia ezberdinak azalduko dituzte adituek, Harriondoan goiz eta arratsalde egingen dituzten tailerretan.

ERRATZU

'Iran txirindulaz'**Abenduaren 23an.**

20:00etan Xabi Torresen eskutik Etxelebert txoko elkartean.

Antzerkia

IRURITA

'Adarretatik zintzilik'**Abenduaren 13an,**

19:00etan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean.

LEKAROZ

'Faustinarekin munduratzu'**Abenduaren 26an,**

12:00etan eskola zaharrean.

Bertsolaritza

BORTZIRIAK

Bertso Eskolaren taldekako txapelketa**Abenduaren 11n**

Beran eta **abenduaren 12an** Lesakan. Informazio gehiago 17. orrialdean.

Ospakizunak.

DONEZTEBE

Santa Luzia eguneko ospakizuna**Abenduaren 13an,**

Informazio gehiago 22. orrialdean.

DONEZTEBE

Errekaren Mendi Eguna**Abenduaren 19an,**

Informazio gehiago 22. orrialdean.

Azokak.

ITUREN

Lanbide eta artisau azoka**Abenduaren 13an.**

SARA

Ekoizle eta eskulangileen azoka**Abenduaren 20an.**

Egun osoz polikiroldegian.

Tailerrak

BERA

'Ezti goxoa'

Abenduaren 12an, 11:00etan Bidaziko egoitzan. Eztiaren prozesua eta dastaketa Xiker Salaberriarekin.

ELIZONDO

Abxikimendu tailerra

Abenduaren 16 eta 23an, 10:30etik 12:30era Arizkunenean 0-6 urte arteko gurasoei zuzendua.

LEITZA

Gurasoentzako hezkidetza tailerra

Abenduaren 14an, 17:00-18:30 eskolan.

Hitzaldiak

LESACA

'Egutegi biodinamikoa'

Abenduaren 14an. Jakoba Errekondoren eskutik. 19:00etan Matxinbeltzenean.

LEITZA

'Dementzia duen pertsonarekin elkarriketa'

Abenduaren 16an, 16:00etatik 18:00etara Leitzako Udaletxean.

DONEZTEBE

'Dolua gaixotasun, heriotza eta beste galera batzuen aurrean'

Abenduaren 17an, Carmen Nieto psikologoaren izenaz da hizlari.

ALMANDOZ

'Baztango Donejakue bidearen berreskuratzea'

Abenduaren 18an, Mikel Ramos arkeologoaren eskutik. Hitzaldi-erakusketa izanen da Beola jatetxearen aretoan 19:30ean.

Zinea

LEITZA

'Amama'

Abenduaren 11an, igandean 19:30etatik aurrera.

ARANTZA

'Circus Columbia'

Abenduaren 12an, 18:00etan Baskulan.

DONEZTEBE

Saharari buruzko proiektio solidarioa

Abenduaren 12an, 19:00etan zineman.

DONEZTEBE

Proiektzioa Carlos Soriaren eskutik

Abenduaren 19an. Errekaren Mendi Egunaren baitan, 19:00etan zineman.

ELIZONDO

'Baztandik Alpeetara eta Norvegiara Mendieskia'

Abenduaren 18an. Arizkunenean 20:00etan emanaldia eskainiko dute Arkaitz Muratori eta Txomin Petrikorenak.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Eguberriekin lotutako ospakizunak

Abenduak azken egunek ohiko doinu eta koloreak izanen dituzte. Olentzeroren etorrera ospatuko dute herriz herri eta hutsik egin gabe, Lesakan Olentzero eta Jaiotza lehiaketak ere egingen dituzte. Ondotik, urtezaharretako kalejira eta lasterketak helduko dira eta urte berriarekin Errege Kabaletak ere etorriko dira. Ongi bukatu urtea eta hobeki hasi 2016a!



Musika.

ARIZKUN

Ahots-kontzertua

Abenduaren 12an,
20:00etan elizan Ibai-
ertz eta Elizondoko
abesbatza kantuan.

LESAKA

Abesbatzaren emanaldia

Abenduaren 28an,
17:00etan Andra Mari
Egoitzan.

ARIZKUN

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 19an,
17:00etan elizan.
Baztango Udal Musi-
ka eskolako ikasleen
eskutik.

Mendi-ateraldiak

LEITZA

Leitza kaxkoz kaxko

Abenduaren 19an
Rezola eta Kortekobor-
da arteko etapa.

BAZTAN

Baztango mendi- goizaleen ateraldiak

Abenduaren 13an
Baigorri-Oilarandi-
Adartza-Baigorri.

Abenduaren 20an
Lekaroz-Legate-
Lekaroz.

Abenduaren 27an
Erratzu-Auza-Erratzu.

Kirola

ESKUALDEA

San Silbestre lasterketa

Abenduaren 31n
Leitzan 16:30ean hasi-
ta. Elizondon 17:00eta-
tik aurrera. Donezteben
18:00etatik aurrera.

Ekitaldi gehiagoren
berri izateko, begiratu:
erran.eus
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Armiarma txiki baten
epopeia handia

ARISTI, PAKO

Erein, 2015

Berak ez du errurik jaio den bezalakoa jaio de-
lako. Armiarma da. Eta ezer egin gabe, mun-
du guztiak gorrotatzen du. Laster ikasiko du jen-
deak ez duela maite. Denek hil nahi dute, zapal-
du, txikitu. Zein gogorra horrela bizitzea! Halere,
bidaia miresgarria egingo du gure protagonista
txikiak. Ezagutuko du izua, arriskua, gosea; bai-
na baita amodioa ere, bihotz oneko jendea, es-
kuzabala. Baztertzen ditugun guztien istorioa da
hau, beltzak direlako, edo musulmanak, edo el-
barriak, edo etorkinak. Ezberdinak direlako bes-
terik ez, haientzako omenaldi bat da ipuin hau.

Musika



Ziklomorphosia

SORKUN

Srgntx/Promomusika
2015

Bakarkako bere laugarren lana kaleratu berri
du Sorkunek. Ziklomorphosia izenburupean
estilo jauzi izugarria eman du; azken urteetan
maisutasunez landu duen rock estiloa albo ba-
tera utzi eta erritmo dantzagarriari helduz. Ilune-
tik, tristuratik jaioak dira lan berrira eraman ditu-
en 11 abestien hitzak, Eider Rodriguez idazleak
berridatzi dituenak. Horietaz gain, *Gizon laztan*
abestia Harkaitz Cano idazlearena da. Hibaika-
ko arraunlariari eskainitako *Urazpian* abestia ere
disco honetan sartu du eta baita hainbatetan jo
duen Howling Wolfen *Spoonfulen* bertsioa ere.

Internet



Lanbide heziketako
materiala eskuragarri

JAKINBAI.EUS

Lanbide Heziketari lotutako euskarazko materia-
la sortu eta Interneten partekatzeko helburua-
rekin jaiotako webgunea da. Material-biltegi opa-
roa, hiztegia eta komunitatea izeneko atala ditu
besteak beste. Azken horri esker, Lanbide Hezike-
tako irakasleek eurek euskaraz sortutako materia-
la webgunera igo eta parteka dezakete. Horrela,
material hori guztia edozein erabiltzailearen eskura
dago, libre eta doan. Webguneak 10.000 kontzep-
tu inguru biltzen ditu, eta terminoei dagokionez,
euskarazko eta gaztelaniazko 20.000 inguru. Kon-
tzeptu zehatzak kontsultatu eta arlo eta gaika ere
egin liteke materialaren bilaketa.

Nire aukera



Txomin ZUBILAGA
Aresoko gaztea

«Herri ttikiek bizirik segitzeko gazteok eman behar diegu jarraipena»

Batzuentzat Txomin,
«besteentzat Domin-
go, atte izaten ikasten ari
den aresoar gazte bat
naiz». Telmo eta Eneare-
kin herriko parkean iza-
ten damaiz eta «zorionez
denborarekin gauzak al-
datzen ari direla» dio, ge-
roz eta gizonezko gehia-
go eta gazteak biltzen
baitira bertan, «Areso be-
zalako herri batean ga-
rantzitsua da gazteek ja-
rraipena ematea, ea lais-
ter aurpegi berri gehiago
izaten diren!». 2015a al-
daketa handiko urtea izan
da beretzat «lanean, fa-
milian... baina pribilejia-
tu bat sentitzen naiz, mo-
mentuz lana daukat eta
etxekoekin egoteko den-
bora gehiago. Horrek as-
ko balio du niretzat». Ur-
te berrirako «ingurukoak
ongi izan eta lanarekin
zortea izatea» eskatzen
du. Astebururako plana
ere argi du «familiarekin
kanpinera joan eta zer or-
du den ere ez jakitea eta
herrian gelditu ezker, so-
ziedadean sue piztu, la-
gun artean afaldu eta kon-
tu batzuk esatea». Bere-
ziki eguberri zalea ez de-
la dio baina «alaba jaio
zenetik Olentzeroren eto-
rrerarekin oso ongi pasa-
tzen dut. Festa politte eta
ilusio asko izaten da».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe moleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, moleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde moleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Kantton Berri karrikan 77 m²ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea desentsarekin. Igogailua eta buelta osoan 55.92 m²ko terraza-ekin. Berritu beharra. ☎948 637359.



ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 65.000 euro. ☎646 774117.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

BERA. Aparteko familia bakarreko txaleta

6.600m²-ko partzela.
Lorategi- zona fruta-arbolekin,
lursail zelaia. 230m²-ko azalera
erabilgarria. Egongela, sukaldea
portxerako sarbidearekin,
ikuztegia, 4 logela, 3 bainugela,
terraza eta garajea.



Tel. Inmo Baztango: 948 630 552 | 620 028 625

ELIZONDO. Txokoton berritzeko dagoen pisua salgai. 3. pisua igogailurik gabe. 70 m²koa, berogailuarekin. 50.000 euro. ☎666 815032.

LEITZA. Patxi Arrazola kalean pisua salgai bagerarekin. 3 logela, komuna, jangela, sukaldea eta bi balkoi. ☎667 675463.

BERA. Legia karrikan 58 m²ko pisua salgai. 2. solairuan, hegoalderantz orientatua. Logela bat, egongela, sukalde ekipatua eta komuna ditu. Hari muskala eta kalefakzioarekin. Igogailua eta ko-

txearendako plaza bat du. ☎645 700549.

DONOSTIA. Gros auzoan, kale peatonalean, 70 m²ko pisua salgai. Erabat berritzeko. 2 logela, komuna eta sukalde oso handia ditu. Igogailuarekin. ☎635 706374.

ELIZONDO. Pisua salgai. 90 m²ko azalera. 1. solairua. Hall, 2 logela, 2 bainugela, egongela haundia, sukalde ederra eta ekipatua. Balkoia eta 15 m²ko sabaia. Kalefakzioa berritua (gas naturala eta kondensaziozko galdara berria). Toki lasaia eta erdigunetik 5

minutura. ☎609 004983

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

BERA. Legia karrikan pisua errentan ematen da. 3 logela, 2 komun eta trastelekuarekin. ☎678 363398/ ☎678 305250.

BERA. Logelak eta apartamentua errentan emateko. ☎654 385363.

URDAZUBI. Duplexa errentan eman nahi da. 2 logela, sukalde-jangela ederra eta bi bainugelarekin. ☎659 849570.

URDAZUBI. Logela bateko apartamentua errentan eman nahi da. ☎659 849570.

Almuñecar hirian, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko abenduan (hilabete osoan). Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzakolehen lerroan dago, igerilekua eta bista ederak. Guztiz ekipatua, aire egokituarekin. ☎658 943702.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan eman nahi da. 3 logela, 2 bainugela, egongela handia, 2 balkoi, igogailua eta berogailua. Deitu 15:00etatik aitzinera. ☎628 512905.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi da. ☎642 993776.

Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. ☎655 028593

Baztan eta inguruko zonaldean errentan hartzeko pisu bila nabil. Altxaririk gabe baldin badago ere berdin zait. Mesedez pisuren bat alokairuan baduzue deitu. ☎646 330956

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 28 €

Zerri gizena
0,975 € kiloak.

Zerramak:
0,380 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,06
1.koa 3,90
2.koa 3,62
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 150,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 180,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,60/7,60
8-10 kilokoak: 6,00/6,20

GARAJEAK/LOKALA errentan emateko

DONEZTEBE. Herri sar-
rerran dagoen 165 m²ko
lokal komertziala erren-
tan eman edo saldu nahi
da erretiroagatik. Hagitz
argitsua da, erakusleho
ederrekin. Interesatuak
deitu konpromisorik ga-
be **630 510918**.



GARAJEAK/LOKALA errentan hartzeko

Lesaka edo inguruan
arte eta artisautza tai-
lerra montatzeko gara-
je edo loka bila gabil-
tza. Handi xamarra eta
errentan hartzeko. **645
013213**.

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....
• Klase guzietako
zurgin lanak
• Eskatu aurrekontuak
konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ZERBITZUAK psikoanalista

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
948 272011 (IRUÑA)
948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

LANA eskariak

Bera edo **Lesaka** ingu-
ruan lan egiteko ema-
kumea eskaintzen da.
Etxeko lanak egin, adi-
neko jendea zaindu, bu-
legoak garbitu... **948
630914/ 678 903294**.

**Frantsesez eta euska-
raz hitz egiten duen
emakumea** lan bila da-
bil. Bulego lanetan, sal-
mentan, zerbitzari eta
hotelako garbiketan es-

perientzia duena. Lan
eskaintzaren bat izanez
gero deitu mesedez.
687 832844.

17 urteko neska prest
dago lan egiteko, hau-
rrak zaintzen, dendaren
batean... **Malerreka al-
dean. 650 080499**.

**Baztan eta inguruan or-
duka** lan egiteko eskain-
tzen naiz. Adinekoak
zaindu edota garbiketa
lanak egiteko prest na-
go. Interesatuak deitu
mesedez **639 311 479**.

LANA eskaintzak

URDAZUBI. Montxo
ostatu-jatetxean sukal-
dari laguntzailea behar
da. Esperientziarekin.
948 599039.

LESAKA. Atxaspi ho-
telean garbitzailea be-
har dugu. Interesatuak
deitu **948 637536/ 647
456611** edo idatzi hote-
la@atxaspi.com-era.

Kamio gidaria behar da
ibilbide internazional eta
nazonaletarako. **609
405265**.

URDAZUBI. Montxo
ostatu-jatetxean sukal-
dari laguntzailea behar
da ostiral, larunbat eta
igandeetarako. **948
599039**.

Harreran lan egiteko
persona bat behar da
Etxalarko bentan. Eus-
kara, gaztelania, fran-
tsesa eta ingelesa jaki-
tea beharrezkoa da. In-
teresatuak bidali curri-
culuma info@etxalar.-
com helbidera.

LESAKA. Atxaspi ta-
bernaren langile bat be-
har dugu. **691 408334**.

MOTORRAK salgai

Renault Clio 1.9 GTD
kotxea salgai. 161.500
km eta ITVa berriki pa-
sa du. 1.700 eurotan.
687 832 844.



Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
NISSAN QASHQAI 360
2014ko ABENDUKOA - 8.000 KM
**EXTRAZ
BETEA**
VW SHARAN ADVANCE DSG 140
AUTOMATIKOA - 7 PLAZA
Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

Volkswagen Starlite
1.9 TDI salgai. 102 zal-
di. 2008 urtekoa.
167.000 km, 4 ate, 7 pla-
za. Atzeko aldeko eser-
lekuak ohe bihurtzen di-
ra eta erdikoek buelta
ematen dute. Mahai to-
lesgarria eta berogailu
estatikoa ditu. 17.500
eurotan. **647 054140**.



MOTORRAK tailerrak

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Iruñandeta, 6 **BERA (NA)**

ANIMALIAK salgai

Arantzaren **behorra sal-
gai**, zuria eta gorria. 10
urte, 7 hilabeteko erna-
ri, mantsoa eta sila eta
lerarekin ibilia. Lurra ha-
rrotzen ere aritua eta
mendia ohitua dago.
666 802174.



LESAKA. Collie arraza-
ko bortz zakurkume sal-
gai. Xuri-beltzak, gura-

soak oso langileak. **626
782835**.



ANIMALIAK oparitzeko

LEITZA. Bi hilabeteko ar-
tzain zakurra oparitzeko.
948 510224.

LESAKA. Katakumeak
opari, hagitz politak. **628
572273**.

DENETARIK salgai

Sei **altzairuzko frega-
dera** salgai, haundiak,
1,5 metro luze, forma
borobildunarekin. **948
585036**.

DONEZTEBE. Hiru su-
kalde ditugu salgai. Di-
seinu modernoak, Siles-
tone enzimarekin, ka-
litate handikoak. Ez eza-
zu galdu aukera bikain
hau! Informazio gehia-
gorako **630 510918**.



Akaziazko 200 pikete
salgai. 1,80 metroko al-
tuera dute. **627 133010**.

Korg X3 teklatura sal-
du edo piano digital ba-
tez aldatu (Yamaha P35)

nahi nuke. Urteak ditu
baina hagitz egoera one-
an dago, ia ibili gabea.
607 269294



ORONAZ. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta
haritza. Etxera erama-
nen da. **676 242520**.



DENETARIK bertzelakoak

BERA. Martxan dago-
en ostalaritzako nego-
zioa errentan eman nahi
da. **605 864355**.

IRUN. Erdigunean da-
goen taberna errentan
eman nahi da. Diskote-
ka baten eta Renfeko
tren geltokiaren ondo-
an dago. Ekipatua, la-
nera sartzeko moduan!
636 858512.



hemen
agertu
nahi duzu?

egin zure erosketa
erran.eus en

IRAGARKIA

2 aldizkaritan eta interneten

10
EURO

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



A young boy with short brown hair is sitting in a black toy car. He is wearing a red long-sleeved shirt under a dark blue vest and blue pants. He is holding the black steering wheel with both hands. The background is dark and blurry, suggesting an indoor setting.

A young girl with a joyful expression is shown from the chest up. She is wearing a bright pink knit hat with a small bow on top and a matching pink scarf wrapped around her neck. Her dark hair is visible at the edges of the hat. She is dressed in a dark-colored winter jacket. The background is a soft, out-of-focus white, suggesting a snowy or very bright outdoor setting.

A young boy with short brown hair is smiling broadly while sitting in a blue inflatable bathtub. He is shirtless, and the background is a plain white wall.



hemen
agertu
nahi
duzu?

argazki
soila
5
EURO

argazki
bikoitza
10
EURO

ALDIZKARIAN
eta
INTERNETEN

Zorionak zuri Zorionak zuri
Zorionak
Zorionak bati!!!!



egin zure erosketa
erran.eus en

Zorion agurrak
jartzeko azken
eguna
urtarrilaren 7a da.

EGUBERRI ON

Simplyn, zuen txikientzako :

Abenduaren

12an ipuin kontalaria & txokolatada

*19an txapa tailerra, aurpegi
margoketa & puzgarri terapia*

Puzgarriak egunero

HIPERSIMPLY

Nafar Mendi merkatalgunea
Arraioz, Baztan | 948.452.656



24H

PUNTXAS

Barrio Behobia z/g · 20305 IRUN · 943 63 82 24

Zorionak!!!

HURBIL DITUGU EGUBERRIAK. DENDA HOBERENAK ERE BAI

denda
txikiak,
pertsona
handiak